



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1998ko uztailaren 1ean

52 ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:

- Ribaforadako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1996ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina (2. or.).
- Urantiako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1996ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina (14. or.).

G saila:
JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK

Ribaforadako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1996ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko azaroaren 11n eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak egindako Ribaforadako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1996ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 1997ko azaroaren 12an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Ribaforadako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1996ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (2. or.).
- II. Helburua (2. or.).
- III. Norainokoa eta mugak (3. or.).
- IV. Iritzia (3. or.).
 - IV.1. Aurrekontuaren kitapenari dagokionean (3. or.).
 - IV.2. Ondare egoeraren azalpena (3. or.).
 - IV.3. Legezketasuna (3. or.).
 - IV.4. Egoera (3. or.).
- V. Finantza-egoerak. 1996ko aurrekontu-betetzea (4. or.).
- VI. Ondorioak eta gomendioak (5. or.).
 - VI.1. Aurrekontua betetzeari buruzko iruzkin orokorrak (5. or.).
 - VI.2. Egoera ekonomikoa 1996ko abenduaren 31n (6. or.).
 - VI.3. Udalaren menpeko erakunde autonomoak (7. or.).
 - VI.4. Bestelako iruzkin orokorrak (7. or.).
 - VI.5. Intereseko alor bereziak (7. or.).

Eranskinak

1. Finantza-pasiboen azalpena (13. or.).
2. Organigrama (13. or.).

I. SARRERA.

Ribaforada Tuterako Merindateko herria da, 1996ko urtarrilaren 1eko erroldaren arabera 3.165 zuzenbidezko biztanle dituena.

Ribaforadako Udalak ondoko mankomunitateetan hartzen du parte:

- Moncayoko Ur Mankomunitatea.
- Erriberako Hondakin Solidoen Mankomunitatea.
- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea.
- Hegoaldeko Nafarroa Kirol Mankomunitatea.

II. HELBURUA.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/95 Foru Legearekin, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/90 Foru Legearekin eta Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/84 Foru Legearekin bat etorriz, Kontuen Ganbarak bere jarduketa-programaren barruan sartu du Ribaforadako Udalaren kudeaketa ekonomiko-finantzarioa eta 1996ko ekitaldiko Gastu eta Dirusarreraren Aurrekontuaren-betetzea fiskalizatzeko lana.

Aztertutako udal erakundeari ezar dakioken legediaren barruan honako hauek biltzen dira funtsean: Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legea (NTOFL), uztailaren 2ko 6/90 Foru Legea, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa (NTAFL); apirilaren 2ko 7/85 Legea, Toki Araubi-dearen Oinarriak arautzekoa (TAOFL); 1981eko ekainaren 8ko Araua, Toki Ogasunak eraberritze-ari buruzkoa (TOA), eta hori garatzeko erregelamendua (TOE), 1981eko abenduaren 17koa; eta

orobat, Nafarroako Toki Erakundeei eskuarki ezar dakiekeen gainerako arautegia.

Txostenaren xedea hurrengo gaiei buruz gure iritzia ematea da:

a) Udalaren eta honen menpeko erakundeen 1996ko aurrekontuaren garapena eta betetzea.

b) 1996ko abenduaren 31n zegoen ondare-egoera agertzea, eskuarki aplikatzen zaizkion kontabilitate-printzipioen arabera.

c) Udalaren jarduera ekonomiko eta finantzarioa legezketasun printzipioaren arabera garatu den ala ez aztertzea.

d) Entitatearen egoera finantzarioa 1996ko abenduaren 31n.

III. NORAINOKOA ETA MUGAK

Kontuen Ganbarak, bere Jarduketa Programari jarraituz, Ribaforadako Udaleko 1996ko ekitaldiko fiskalizazio txostena burutu du.

Dirusarrera eta gastuei buruzko kapitulu ekonomikoak gainbegiratzeari eta Udalaren ondare-egoera eta egoera finantzarioa aztertzeari lotu zaie lana. Antolaketa, kontabilitate eta barne kontrolako alderdiak jorratu dira, eta gorabeheren arabera beharrezkotzat jo ditugun frogak egin dira, udalera lehendik bidalitako galdetegian agerian geratu diren arazoak direla eta. Horretan Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organo Instituzionalen Koordinazio Batzordeak (KKO) onetsiriko Sektore Publikoaren Auditoretzaren Printzipio eta Arauak aplikatu dira.

Gure lanak izan dituen mugak honako faktore hauek eragin dituzte:

- Udalean ezarri den kontabilitate sistema eskasa, eta horrek, batez ere, inbentarioan du eragina.

- Udalaren kontabilitate sistemak aurrekontu-betetzearen jarraipena besterik ez du egiten (aurrekontu kontabilitatea); ez da kontabilitate orokorrik aurkezten Udalak ekitaldi bakoitzaren bukeran duen ondare-egoera azaltzen duenik.

Txostenean Udalaren kudeaketa hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin eta gomendioak bildu ditugu. Bi eranskin ere jarri ditugu, bat 1996ko abenduaren 31ko finantza-pasiboan zerrenda ematen duena (ikus 1. eranskina) eta bestea entitatearen organigrama agertzen duena (ikus 2. eranskina).

Zelaiko lana 1997ko ekainean egin zen.

Ribaforadako Udaleko langile guztien laguntza eskertu nahi dugu, gure lana burutzea erraztu baitute.

IV. IRITZIA.

Burururiko fiskalizazioaren barruan, Ribaforadako Udalaren 1996ko ekitaldiko gastu eta dirusarreraren aurrekontu-betetzearen egoera aztertu dugu.

Azterketan, Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organo Instituzionalen Koordinazio Batzordeak (KKO) onetsiriko Sektore Publikoaren Auditoretzaren Printzipio eta Arauak aplikatu ditugu.

Gure azterketatik, honako iritzi hau ondorioztatzen da.

IV.1 AURREKONTUAREN GARAPENARI ETA KITAPENARI DAGOKIONEAN.

Gure ustez, 1996ko ekitaldiko Aurrekontuaren Kitapenak Ribaforadako Udalak fiskalizaturiko ekitaldian burururiko eragiketen multzoa era arrazoizko batean agertzen du, honako salbuespenekin:

- Dirusarreretan hainbat erresulta daude ekitaldi horretan huts egindakoetara aldatu behar zirenak (ikus V.1. atala).

- Aurrekontu egozketa okerrak daude, nahiz eta ez duten islada orokorrik udalak burururiko jardueran.

- 1996ko ekitaldiko eragiketen mozketak desegokia, nahiz eta ez duen ukitzen udalak burururiko jarduerari buruzko informazio ekonomiko eta finantzarioa.

IV.2 ONDARE EGOERAREN AZALPENEA.

Ondareari buruzko kontabilitaterik eta ondorioz, egoeraren balantzerik ez dagoenez, ez eta 1995eko inbentarioaren eguneratzerik ere, ezin dugu iritzirik eman 1996ko abenduaren 31n Udalak zeukan ondare egoerari buruz.

IV.3 LEGEZKOTASUNA.

Ribaforadako Udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezketasun printzipioaren arabera garatzen da orokorrean.

IV.1.4. FINANTZA-EGOERA.

1996ko abenduaren 31n finantza-egoera garbia du Ribaforadako Udalak; hala mantenduko balitz aurreko ekitaldiko finantza-pasiboai aurre egiteko moduan egonen litzateke.

Halaber, udal diruzaintzaren egoera egokia da epe motzera; autofinantziazteko gaitasun nahikoa du eta hori azpimarratzekoa da; zorpetze maila zorpetzeko mugaz beherago dago, hau da, ez du gainditzen ekonomikoki gainditu behar ez den muga.

Labur bilduz, eta **ondorio orokor** gisa, nahiz eta Udalak egindako aurrekontuari buruzko informazioak ekitaldiko gastuak eta dirusarrerak modu egokian erregistratzen dituen, Kontuen Ganbarak uste du informazio ekonomiko eta finantzariako gaurko sistema kudeaketa publikoaren beharretara

egokitu behar dela. Bide horretan daude txosten honetan bildutako gomendioak.

V. FINANTZA-EGOERAK. 1996KO AURRE-KONTU-BETETZEA.

Ribaforadako Udalak aurkeztu dituen finantza-egoerak, 1996ko ekitaldiari dagozkionak, ondoko hauek dira:

- 1996ko ekitaldiko aurrekontuen kitapenari dagozkion dirusarrera eta gastuen egoera.
- Diruzaintza-gerakinaren egoera 1996ko abenduaren 31n.

Aurrekontuaren kitapena. 1996ko ekitaldia (pezetatan)

Gastuak

Kontua/kapitulua	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Kitaturiko betebeharrak	Kitaturiko ordainketak	Ordaintzeko dagoena	Betetzea, %	Aitorturiko guztizk. %
0. Itxitako ekitaldien erresultak	14.256.535	0	14.256.535	14.173.093	14.173.093	0	99	6
1. Langileen ordainketak.	77.677.000	217.000	77.894.000	75.904.874	75.299.783	605.091	97	34
2. Ohiko ondasunak erostea	75.973.556	2.837.346	78.810.902	72.909.500	69.696.979	3.212.521	93	33
3. Korrituak	3.770.318	0	3.770.318	3.372.847	3.372.847	0	89	1
4. Ohiko transferentziak	21.934.000	2.033.611	23.967.611	23.582.561	20.703.496	2.879.065	98	11
6. Inbertsio errealak	32.892.135	(2.398.353)	30.493.782	25.763.789	19.063.2658	6.700.524	84	12
7. Kapital transferentziak	0	0	0	0	0	0	0	0
8. Finantza-aktiboan aldaketak	0	0	0	0	0	0	0	0
9. Finantza-pasiboan aldaketak	8.274.884	0	8.274.884	8.274.884	8.274.884	0	100	3
Guztira	234.778.428	2.389.604	237.468.032	223.981.548	210.584.347	13.397.201	94	100

Dirusarrerak

Kontua/kapitulua	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Kitaturiko eskubideak	Kitaturiko dirubilketa	Kobratzeko dagoena	Betetzea, %	Aitorturiko guztizk. %
0. Itxitako ekitaldien erresultak	27.450.786	0	27.450.786	27.358.267	21.126.290	6.231.977	99	10
1. Zuzeneko zergak	58.350.000	0	58.350.000	58.758.968	56.121.452	2.637.516	101	23
2. Zeharkako zergak	7.000.000	0	7.000.000	12.041.940	10.289.299	1.752.641	172	5
3. Tasak eta bestelako dirusarrerak	30.770.000	0	30.777.000	32.124.621	30.395.864	1.728.757	104	12
4. Ohiko transferentziak	93.282.893	2.689.604	95.972.497	101.214.800	101.214.800	0	105	39
5. Ondare dirusarrerak	17.459.000	0	17.459.000	18.768.776	17.338.929	1.429.847	108	7
6. Inbertsio errealak besterenganatzea	5.000.000	0	5.000.000	8.158.040	8.158.040	0	163	3
7. Kapital transferentziak	2.660.000	0	2.660.000	2.857.513	2.617.513	240.000	107	1
8. Finantza-aktiboan aldaketak	0	0	0	0	0	0	0	0
9. Finantza-pasiboan aldaketak	0	0	0	0	0	0	0	0
Guztira	241.972.679	2.689.604	244.662.283	261.282.925	247.262.187	14.020.738	107	100

1996ko abenduaren 31ko diruzaintza-gerakinaren egoera.

	Pezetak
Urteko aurrekontuan kobratzeko dauden eskubide aitortuak	7.788.761
Itxitako aurrekontuetan kobratzeko dauden eskubide aitortuak	6.231.977
Aurrekontuaz besteko eskubideak (ABIL)	–
Ken kobratzen zailak diren hartzekodunak	(4.157.000)
Urteko aurrekontuan ordaintzeko dauden betebeharrak aitortuak	(13.397.201)
Itxitako aurrekontuetan ordaintzeko dauden betebeharrak aitortuak	
Aurrekontuaz besteko betebeharrak (ABIL)	(2.886.601)
Finantza-kontuetako hartzekoduna	39.564.441
Gerakina, guztira, 1996ko abenduaren 31n	33.144.377

VI. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Jarraian ondorioak eta Udalaren antolaketa eta barne kontrolerako sistema hobetzeko, horrela kudeaketan hobekuntza lortuz, egoki iruditzen zaizkigun gomendio orokorrak eman ditugu.

VI.1. AURREKONTUA BETETZEARI BURUZKO IRUZKIN OROKORRAK.

IV Atalean Iritziari buruz esandakoa kontutan hartuz, aurrekontua betetzetik eratorzen diren honako alderdi hauek azpimarratu nahi ditugu:

Ribaforadako Udalaren 1996ko ekitaldiko aurrekontua 1996ko apirilean onetsi zen.

Aurrekontuaren betetzea Osoko Bilkurak onetsi zuen 1997ko apirilaren 7an.

1996ko aurrekontuko dirusarreraren eta gastuen betetze maila altua da, ehuneko 107 eta 94, hurrenez hurren.

1996ko aurrekontu-betetzeak, aurreko urteetako erresultak kenduta, 233.924.658 pezetako aitorturiko eskubideak agertzen ditu; aitorturiko betebeharrak, berriz, 209.808.455 pezeta egiten dute. Beraz, aurrekontu-betetzeak 24.116.203 pezetako superabita agertzen du.

Dirusarreraren egoeran (ikus V. atala) kapitulurik garrantzizkoenak ohiko transferentzia eta zuzeneko zergena da, izan ere ehuneko 39 eta 23ko aitorturiko eskubideak agertzen baitituzte, hurrenez hurren.

Gastuen egoeran (ikus V. atala) aitorturiko betebeharrak buruzko kapitulurik garrantzizkoena, langileen lansariena eta ohiko ondasunen eta zerbitzuen erosketak da, izan ere ehuneko 34 eta 33 egiten baitute, hurrenez hurren.

Beste aldetik, badaude gastuen eta dirusarreraren egozketak okerrak, beren izaera ekonomikoari dagokionez, eta eragiketen mozketak behar ez bezalakoa.

Gure azterketan zehar, agerian jarri da 1996ko aurrekontuaren kitapena ondoko zenbatekoetan aldatu behar zela:

a) Aurreko ekitaldiei zegozkien gastuak eta dirusarrerak bildu dituzenez, 1996ko ekitaldiko aurrekontuaren betetzeak, gutxi gora-behera, gastuetan 140.766 pezeta gehiago bildu ditu eta dirusarreretan 6.834.610 pezeta gehiago.

b) 1996ko ekitaldian sorturiko gastu eta dirusarrerengatik, urte horretako aurrekontuaren kitapenean sartu ez direnak, aurrekontu horrek, gutxi gora-behera, 1.740.956 pezeta gehiago agertu behar zituen gastuetan eta 8.475.348 pezeta gehiago dirusarreretan.

c) Gure ustez oker egindakoetara aldatu behar ziren –batez ere zaharrak direlako– dirusarreraren erresultetan sarturiko kontusailengatik, kontusail horiek 4.157.000 pezeta gutxiago agertu behar zituzten.

Aurreko lerroaldeekin bat etorritz, honako hau gomendatzen dugu:

Udalaren aurrekontuen behin betiko onespenerari buruz indarrean dagoen legedian ezarritako epeak betetzea.

Gastuen eta dirusarreraren kontabilizazioak beren sortzapenaren arabera agertu behar du, aurrekontu-betetzearen jarraipen egokia egin ahal izateko, kredituen muga-izaera errespetatuz edo/eta aurrekontu-aldaketak eginez, hala behar izanez gero.

Gastuak eta dirusarrerak behar diren epigrafean kontabilizatu behar dira, jatorri ekonomikoaren

arabera; horrela, aurrekontu-betetzeari buruzko zenbakien distortsioa saihestu daiteke.

Toki sektore publikorako kontabilitate plan orokorra ezartzea, hori udalak dauzkan langileekin egin ote daitekeen aztertuz; horretarako modurik ez badago, itun bat egin daiteke beste toki entitateen batekin. Plan hori 1998 urterako ezartzea aurreikusitua da.

VI.2. EGOERA EKONOMIKOA 1996KO ABENDUAREN 31N.

- Jaso dugun informazioaren arabera eta aintzat hartuta txosten honetan biltzen diren iruzkinak, Udalak ondoko finantza egoera dauka 1996ko abenduaren 31n:

	Pezetak
Dirusarreraren erresultak	14.020.738
Diruzaintzako hartzekoduna	36.677.840
Gastuen erresultak	(13.397.201)
Superabita	37.301.377

Superabit hori, dena den, doitu egin beharko litzateke kobratzeko dauden 4.157.000 pezeta inguruko ordainagiritako akats eta ordainezintasunarengatik, aurreko VI.1. atalean zehaztu den bezala.

- Ondoko koadroan aurrekontuan aitorturiko gastu eta dirusarreraren osaketaren ehunekoak eman ditugu, betiere haien jatorriaren arabera:

Jatorria	Gastuak	Dirusarrerak
Ohiko eragiketak	84	95
Kapital eragiketak	16	5
Guztira	100	100

- Beste aldetik, jarraian eman ditugu 1996 eta 1995 urteetako aurrekontu-betetzeetatik atera ditugun ratio eta magnitude batzuk, Udalak berak aurkeztuak:

	(milioi pezetatan)	
Ratio eta magnitudeak	1996	1995
Superabita/ (Defizita)	37	18
Aurrezki gordina (1)	51	42
Aurrezki garbia (2)	39	30

	(pezetatan)	
Kontzeptua	1996	1995
Tributu-dirusarrerak biztanle bakoitzeko (3)	32.520	29.522
Finantza karga biztanle bakoitzeko	3.680	3.721
Dirusarrerak per cápita	8.140	12.587
Gastu publikoa per cápita	66.290	66.408

	(ehunekoak)	
Kontzeptua	1996	1995
Zorpetze maila (4)	5	6
Zorpetzearen muga (5)	23	21

(1) Ohiko dirusarrerak – funtzionamendu gastuak.

Ohiko dirusarreretat hartu ditugu dirusarreraren eta funtzionamendu gastuen lehenbiziko kapitulutik bosgarren kapitulura eta gastuetako 1, 2 eta 4. kapituluak.

(2) Aurrezki gordina – finantza karga.

Finantza kargat hartu ditugu gastuen 3 eta 9. kapituluak.

(3) Tributuen bidezko dirusarrerak / eskubidedun populazioa

Tributuen bidezko dirusarreretat hartu ditugu dirusarretako 1etik 3. kapitulura bitartean.

(4) Finantza-karga / Ohiko dirusarrerak x 100

(5) Aurrezki gordina / Ohiko dirusarrerak x 100

Jarraian, aurreko ratio eta magnitudeak komentatuko ditugu, kontuan hartuta, betiere, 1995eko datuak ikuskatu gabe daudela. Dena den, datu horiek alderatuta, ondorio hauek atera ditugu:

- Bi ekitaldietan aurrezki gordinak eta aurrezki garbiak positiboak dira, eta 1996an igo egin dira; horrek esan nahi du udalak bere baliabide propioak sortzen dituela dirusarrerak finantziatu ahal izateko.

- Tributuen bidezko dirusarrerak eta biztanle bakoitzeko finantza karga antzekoak dira 1996an eta 1995ean.

- Per capita-ko inbertsioak nabarmen murriztu dira 1996an, izan ere 1995ean 40 milioi pezeta inbertitu ziren bitartean, 1996an 26 milioi pezetako inbertsioak egin baitziren.

- Zorpetze maila zorpetzeko muga baino txikiagoa da; horrek bidea ematen du toki on bat izateko etorkizuneko ekitaldietan; horri ondoko lerroaldean zehazten dena erantsi beharko genioke:

1. eranskinetik ondoriozta daitekeenez, mailegu eta diru-aurrerakinengatik hartutako zorra 25.411.104 pezetakoa da 1996ko abenduaren 31n.

1996ko ekitaldiko finantza-karga ondoko zenbeteoetan eman da:

	Pezetak
Zorraren amortizaziorengatik	8.274.884
Korrituengatik	3.372.847
Guztira	11.647.731

Ondorioz, uste dugu Udalak egoera ekonomiko saneatua duela; egoera hori ez bada aldatzen edo mantentzen baldin bada, eta zorren mugae-gunak aintzat hartuta, esan daiteke Udalak hurrengo ekitaldian pasibo horiei aurre egin ahal izanen diela.

VI.3. UDALAREN MENPEKO ERAKUNDE AUTONOMOAK.

Ez dago Udalaren menpeko erakunde autonomo bakarra ere.

VI.4. BESTELAKO IRUZKIN OROKORRAK

VI.4.1 Aurrekontu sistema eta barne kontrola

Udalak erabiltzen duen kontabilitate sistema aurrekontu kontabilitateari dagokiona da. Aurrekontua sailkapen ekonomikoarekin batera aurkeztu eta betetzen da.

Egindako azterketatik, ondoko puntu hauek azpimarratu behar ditugu:

- 1996ko aurrekontua betetzeko oinarririk ez dago, baina horiek bai gauzatu dira 1997ko aurrekontuaren betetzerako.

- Ez dago oinarrizko eragiketetan aplikatu beharreko kontabilitate irizpideak zehazten dituzten ibilbide kontable eta administratibo nagusiei buruzko prozedura idatzirik.

- Gastuak ez dira erregistratzen sortzen diren unean. Ondorioz, ohartu gara ez dela eragiketen mozketak egokia egiten; hori dela eta, gastuen eta dirusarreraren zenbait kapituluatan aurreko ekitaldiak eta urte berekoak erregistratzen dira eta, beste aldetik, urte bereko ekitaldiko zenbatekoak hurrengo urtean erregistratzeko geratzen dira. Zenbateko horiek ez dute garatutako udal jarduerari buruzko informazio ekonomiko eta finantzarioa aldatzen; txostenean zehar zehaztu ditugu.

- Zenbait akats ikusi ditugu zenbait gastu eta dirusarrera dagozkien kapituluetan egozteko garaian. Akats horiek ez dute garatutako udal jarduerari buruzko informazio ekonomiko eta finantzarioa aldatzen; txostenean zehar zehaztu ditugu.

Aurreko lerroaldeetan zehaztu dugunaren araber, ondoko gomendioak eman ditugu:

- *Kontabilitateko oinarrizko prozedurak bilduko dituen eskuliburu bat prestatzea, bereziki ondokoak garatuko dituen:*

a) *Prozedura bakoitzean aplikatu beharreko kontabilitate irizpideak*

b) *Aldiro koadratzea eta egiaztapenak egitea.*

c) *Ixteko eragiketak*

d) *Saldoen azterketa.*

- *Gastuak eta dirusarrerak sortzapenari jarraituz kontabilizatzea aurrekontu betetzean; gastuen eta dirusarreraren aurrekontu-egozketa jatorri ekonomikoaren arabera kontabilizatzea.*

VI.4.2 Ondasun higiezinak eta komunalak. Udalaren inbentarioa.

Ondasunen inbentarioa TRACASA enpresa publikoak burutu zuen 1995ean. Udalak ez du inbentario hori urtero eguneratu.

Beste aldetik, Udalak eskrituraturik eta Jabetzaren Erregistroan erregistraturik dauzka bere jabetzapeko ondasun higiezinak eta komunal gehienak.

Ondokoak gogoratu behar ditugu:

Udal inbentarioa eguneratu behar da, Udalaren jabetzapeko ondasunak behar bezala bil ditzan.

Behar diren neurriak hartu behar dira ondasun guztiak eskrituratzeko eta Jabetzaren Erregistroan erregistratzeko.

VI.5 INTERESEKO ALOR BEREZIAK

VI.5.1 Langileen soldatak

Hauek dira 1996 ekitaldiko langileen kapituluari buruzko xehetasunak:

	(pezetak)
	Kitaturiko betebeharrak
Oinarrizko ordainsariak	24.168.813
Bestelako sariak	4.200.186
Famili osagarria	662.345
Lan kontratupeko langileak	1.800.735
Kontratupeko langileak	8.979.800
Gizarte aseguruak	5.044.724
Klase pasiboak	31.048.271
Guztira	75.904.874

Langileriaren kapituluak gastuetan aitorturiko guztizkoaren ehuneko 34 egiten duten aitorturiko betebeharrak biltzen ditu.

Labur bilduz, 1996ko abenduaren 31n, hauek dira Udalean lanean ari diren langileak:

Funtzionarioak	10
Lan kontratupeko langile finkoak	1
Aldi baterako lan kontratudunak	1
Guztira	12

Langile funtzionarioak honela banatuta daude:

Idazkaria	1
Diruzaina	1
Administrari laguntzailea	1
Udaltzaintza	4
Mandatariak	2
Sanitarioa	1
Guztira	10

Diruzaintza Udalak berak kudeatzen du.

Ez dago idatziz jarririk enplegatu bakoitzak zer eginkizun dituen. 2. eranskinean, organigrama gutxi gora-beherako bat eman dugu.

Arlo honetan datuak sortzeko eta kontabilizatzeko jarraituriko prozeduren azterketa eginda, ondokoa geratu da agerian:

- Enplegatu bakoitzari buruzko agiri guztiak biltzen dituzten espediente banakatuak daude.

- Udalarekin lan harremanen bat daukaten pertsona guztiak kasuan kasuko kontratua sinatu dute, eta plantilan sartzeko indarra duen legediari jarraitu zaio.

- Langile funtzionarioen nominak Udalak egiten ditu hilabetero; gainerako langileen nominak kanpoko enpresa batek egiten ditu. Nomina horien gaineko berrikuspenak egiten dira aldizkotasun jakin batekin eta azterketa hori idatziz jasotzen da.

- Aseguru sozialetan 1.499.073 pezetako zenbatekoa dago, Udalak kontrataturiko aseguru polizei dagokiena eta bereziki ondoko kontzeptuak biltzen dituena:

- Udalbatzako kideen istripuak.
- Higiezinen gaineko arrisku anitzeko polizak.
- Erantzukizun zibila.

Gure iritziz, zenbateko hori ohiko ondasunen eta zerbitzuen erosketari buruzko kapituluan bildu beharko litzateke.

Aurreko lerroaldetako iruzkinei jarraituz, ondoko gomendioak eman nahi ditugu:

Enplegatu bakoitzaren eginkizunak idatziz ematea.

Nominen prozesua kontabilitatean integratuko duen aplikazio informatikoren bat erabiltzea; horrek langileen kudeaketaren jarraipen prozesua eta kontrola hobetuko luke.

VI.5.2 Ohiko ondasunen eta zerbitzuen erosketa

Erosketek eta zerbitzuengatikoko gastuek guztizko gastuaren ehuneko 33 egiten dute, ondoko azalpenean ikusten den bezala:

	(pezetak)
	Kitaturiko betebeharrak
Bulego gastuetarako ohiko zenbatekoa	3.503.984
Higiezinetakoko gastuak	6.937.746
Dietak, bidaiak eta lekualdaketak	2.824.621
Zerbitzuen funtzionamendurako gastu bereziak	53.964.988
Inbertsioen kontserbazioa eta ohiko konponketak	4.311.133
Zehaztu gabeko gastuak eta zergak	1.367.028
Guztira	72.909.500

Prozeduren eta kontabilizaturiko zenbatekoen azterketa eginda, ondorio hauek atera ditugu:

- Dietak, garraioak eta lekualdaketek 2.054.000 pezeta egiten dute, zinegotzien ordainariei dagozkienak eta, ondorioz, langileen lansari gisa hartu beharko liratekeenak.

- Zenbait ordainketa-aginduren euskarri dokumentala ez da nahikoa.

- Udalak 250.000 pezetako dirulaguntza eman dio Kirolen Udal Kontseiluari. VI.5.4. atalean kontseilu horri buruzko iruzkin lagungarriak bildu dira.

- Zerbitzuen funtzionamendurako gastu berezien artikuluan, ondoko zenbatekoak bildu dira:

	Pezetak
Argiteria publikoa	11.716.775
Herriko festak	10.958.795
Musika banda	2.399.000
Lorezaintza	4.206.133
ANIMSA	2.167.993
Tresnak erosteko dirulaguntza	200.000
Musika irakaslea hartzeko dirulaguntza	585.165
Besterik	21.731.127
Guztira	53.964.988

• Musika bandari eta musikako hastapenak emateko irakasleari buruzko artikuluen xehetasun batzuk:

	Pezetak
Udal bandarako dirulaguntza	2.399.000
Tresnak erosteko dirulaguntza	200.000
Musika irakaslea hartzeko dirulaguntza	585.165
Guztira	3.184.165

VI.5.13 atalean musika bandari buruzko zenbait iruzkin lagungarri bildu dira.

• Egiatzatu ahal izan dugu Udalak festengatiko gastu garbi gisa erregistratu dituela festa horietan lorturiko dirusarrerak. Hona hemen kontzeptu horien gutxi gora-beherako zenbatespena:

	Pezetak
Gastuak	4.323.000
Dirusarrerak	(2.638.000)
Guztira	1.685.000

Gure ustez, egokiena izanen litzateke gastu horien zenbateko osoa kontu horretan eta lorturiko dirusarrerak tasen eta bestelako dirusarreraren kapituluaren erregistratzea.

• 1996ko ekitaldian eragiketen mozketak desegokia egin da. Gure azterketan oharturiko kontzeptuen gutxi gora-beherako zenbatespenak 140.766 pezeta islatzen ditu 1996an aurreko ekitaldiei dagozkienak, eta 1996 ekitaldiari dagozkion 1.740.956 pezeta kontabilizatu dira 1997an.

Zehaztutakoari jarraituz, hona hemen gure gomendioa:

Zenbateko garbia gastuen eta dirusarreraren kontabilitatetik kentzea.

VI.5.3. Korrituak

1996ko gastuen aurrekontuaren kitapenean 1995eko ekitaldian sorturiko zenbait gastu bildu dira; 1996an sorturikoak, berriz, 1997ko ekitaldian erregistratu dira. Zenbatekoak ez dira sobera handiak.

VI.5.4. Ohiko transferentziak

Gastuen aurrekontuko ohiko transferentzien kapituluak guztizko gastuaren ehuneko 11 egiten du. Hona hemen xehetasunak

	Pezetak
Lurraldeko erakundeei	12.574.813
Irabazi asmorik gabeko erakundeei	854.196
Familiei	10.153.552
Guztira	23.582.561

Prozedurak eta kontabilizatutako zenbatekoak azterturik, hau ohartu dugu:

• Hona hemen lurralde erakundeei eginiko ohiko transferentzien xehetasuna:

	Pezetak
Kontuhartzaile mankomunatuaren zerbitzua	925.710
Hondakin solidoen mankomunitatea	9.236.972
Oinarrizko gizarte zerbitzuak	2.412.131
Guztira	12.574.813

• Familientzako transferentziek 2.028.435 pezeta egiten dute, Kiroletarako Udal Kontseilua-erentzako dirulaguntza gisa. 6/90 Foru Legean bildutako zerbitzu publikoen kudeaketari buruzko arauetan ezin izan dugu aurkitu Kiroletarako Udal Kontseilua erakunde publiko gisa hartzeko modurik, alegia, administrazioaren organo berezi gisa, herri udalbatzaren aurrekontu-egituratik indendentea dena. Horregatik, ez da egokia fondoaren transferentzia dirulaguntzen bidezko hori, bereziki gai horri buruz erabakitzeke eta kudeatzeko boterea udalaren beraren ohiko organoen eskuetan daudenean.

• Batzuetan, ez dago irizpideen batasunik dirulaguntzak emateko orduan ez eta fondo horiek eman ziren helburuan aplikatzen ote diren kontrolatzeko orduan ere.

Zehaztutakoari jarraituz, hona hemen gure gomendioa:

Emandako dirulaguntzak berrikusteko planen bat egitea, era sistematikoan dirulaguntzak zuzen ematen direla bermatu ahal izateko.

Era sistematikoan prozedura multzo bat aplikatzea ondoko helburuetarako: alde batetik dirulaguntza emakidaren arabera aplikatu dela eman zen helburua lortzeko; bestetik, eraginkorra izan dela bilatzen ziren helburuak lortzeko.

VI.5.5. Inbertsio errealak.

25.763.789 pezetako onartutako betebeharrak izanda, gastuen aurrekontuaren betetze osoaren ehuneko 12 da. Haien betetzeak behin betiko aurrekontuaren ehuneko 84 egin du.

Hona hemen 1996ko ekitaldian eginiko inbertsioei buruzko zenbait xehetasun:

	Pezetak
Hirigintza	9.724.217
Pilotalekua estaltzea	1.215.491
Futbol zelaian eginiko obrak	1.964.899
Parkeak	2.660.838
Traktorea	2.125.000
Ibilgailua	1.860.000
Besterik	6.213.344
Guztira	25.763.789

Prozedurak eta kontabilizatutako zenbatekoak azterturik, hau ohartu dugu:

- 500.000 pezetako dirulaguntza bildu da Ribaforadako Kirol Elkarteari emateko, lanean emandako 75 urteak eskertzeko, instalazioak eta elkarreko ekipamendua hobetzeko helburuarekin.

Uste dugu zuzenena zela idazpen hori kapital transferentzietan erregistratzea, gastuen aurrekontuari buruzko kapituluaren.

- Eginiko lanetatik ez dago bakar bat ere bi milioi pezetako zenbatekoa gainditzen duenik; lan gehienak edo administrazioak burutu ditu edo INEMen laguntzarekin egin dira.

VI.5.6. Tributuen bidezko dirusarrerak

1996ko aurrekontuaren kitapenaren arabera, tributuen bidezko dirusarrerak ondoko betetzea izan dute:

	(pezetatan)		
Kapitulua	Behin betiko aurreikuspena	Kitaturiko eskubideak	Kitaturiko dirubilketa
Zuzeneko zergak	58.350.000	58.758.968	56.121.452
Zeharkako zergak	7.000.000	12.041.940	10.289.299
Tasak eta bestelako dirusarrerak	30.770.000	32.124.621	30.395.864
Guztira	96.120.000	102.925.529	96.806.615

Tributuen bidezko dirusarrerak Udalaren dirusarrera guztien ehuneko 40 egiten dute.

Ondoko koadroan kapitulu horien betetzea eman nahi izan dugu, zergagaien arabera sailkatuta:

Zergagaia	Kitaturiko eskubideak (pezetak)	Kitaturiko guztizkoaren %
Landa kontribuzioa	7.438.908	7
Hiri kontribuzioa	30.804.978	30
Lizentzia fiskala	9.847.153	10
Zirkulazio zerga	10.667.929	10
	58.758.968	57
Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga	10.476.432	10
Telefónicaren kanona	1.565.508	2
	12.041.940	12
Zerbitzuen tasa	5.566.536	5
Zaborren tasa	9.333.000	9
Iberdrolaren tasa	2.896.447	3
Errodaje tasa	2.320.714	2
Landazaintza	3.240.210	3
Bestelako tasak	8.767.714	9
	32.124.621	31
Guztira	102.925.529	100

Zenbateko eta 6 tasa horiek Udalak onetsitako ordenantzen arabera biltzen dira.

Aplikatzen diren kontrol prozedurak eta alor honetan kontabilizaturiko zenbatekoak aztertuta, honako hau ohartu dugu:

- Zuzeneko zergen alorrean zirkulazio zerga sartu da; zeharkako zerga gisa sartu beharko litzateke, ordea.

- Zerbitzuen tasa Udalak berak ezarritako tasa da, etxebizitza bakoitzean bizi diren pertsonen kopuruaren arabera biltzen dena. Tasa hori ez dago inongo legezko xedapenetan araturik.

Txosten honi buruzko eztabaida egiteko aldirian, Udalak jakinarazi digu tasa hori kendu egin dela 1997ko aurrekontuetan.

- Ez erroldak, ez horien beranduagoko aldaketak ez ditu Osoko Bilkurak onesten.

- Zeharkako zergen izenburupean, 1.565.508 pezetako zenbatekoa jarri da, Telefónicak udalerriko lurgaina eta lurra erabiltzeari zor zaiona: hor ez, tasen eta bestelako dirusarreraren atalean erregistratu behar zen.

- Halaber, kontzeptu horiei buruzko eragiketen mozketak ez da behar bezala egin. Buruturiko lanaren arabera, hona hemen kontzeptu horien gutxi gora-beherako zenbatespena:

a) 1995ean sortu eta 1996ko kontabilitatean erregistratu direnak:

	Pezetak
Teléfonicaren kanona	468.000
Iberdrolaren kanona	453.000
Guztira	921.000

b) 1996an sortu eta 1997ko kontabilitatean erregistratu direnak:

	Pezetak
Teléfonicaren kanona	365.803
Iberdrolaren kanona	489.179
Otras tasas	605.300
Guztira	1.460.282

• Dirubilletako Agenteari ez zaio behar den fidantza eskatu.

• Aurreko ekitaldien erresulten eta urteko ekitaldiaren ondorioz, dirusarrera fiskaletatik heldu diren zenbatekoak erregistratu dira. Egindako azterketatik abiatuta, gure ondorioa da haietako batzuk oso zaharrak direla eta horregatik kobrazinak; horren ondorioz, akats egindako kontusailetara aldatu beharko lirakeke (4.157.000 pezeta inguru egiten dute, guztira).

Aurreko lerroaldeetan komentatutakoaren araber, hona gure gomendioa:

Dirusarrera fiskalei eta haien aldaketei dagozkien erroldak Osoko Bilkurak onestea.

Dirubilletako Agenteari dagokionean, egoera legeztatu behar da ordaindu beharreko fidantza dela eta.

Kobratzeko dauden zenbatekoak kobratu ote daitezkeen azterketa erabatekoak egitea, aldiro.

VI.5.7. Ohiko transferentziak.

Ohiko transferentziek kitaturiko eskubideen 101.214.800 pezetako zenbatekoa biltzen dute. Dirusarrera guztien ehuneko 39 egiten dute. Zenbateko horrek kontzeptu hauek biltzen ditu, batez ere: Funtzionarioen Montepioa, Toki Ogasunen Lurraldeko Fondoaren partehartzea, lurralde-erakundeen bestelako ohiko dirulaguntzak eta Estatuko tributuen partehartzea.

Aplikaturiko kontrol prozedurak eta kontabilizaturiko zenbatekoak aztertu ondoren ondokoak ohartu dugu atal honetan:

Dirusarreraren aurrekontuaren kitapenean, 1995ean eta aurrekoetan sorturiko zenbait dirusarrera bildu dira; beste aldetik, ez dira sartu 1996ko ekitaldian sorturiko beste dirusarrera batzuk.

Burutu dugun lanari jarraituz, hona hemen kontzeptu horien gutxi gora-beherako zenbatespena:

- 1995ean sortu eta 1996an erregistraturikoak:

	Pezetak
Estatuko tributuen partehartzea	2.606.009
Dirulaguntzak	3.088.968
Osasun alorreko ateratzeak	218.633
Guztira	5.913.610

- 1996an eta aurrekoetan sortu eta 1997ko kontabilitatean erregistraturikoak:

	Pezetak
Estatuko tributuen partehartzea	2.313.752
Dirulaguntzak	2.580.286
Osasun alorreko ateratzeak	484.568
Guztira	5.378.606

VI.5.8. Kapital transferentziak

Kapital transferentziek 2.857.513 pezeta egiten dute, hau da, dirusarrera guztien ehuneko bat; lurraldeko erakundeek obrak egiteko emaniko dirusarrerak biltzen dituzte.

Aplikaturiko kontrol prozedurak eta kontabilizaturiko zenbatekoak aztertu ondoren, honako hau ohartu dugu alor honetan:

Ez da bildu 1996an 1.636.461 pezetako obra bat egiteko emaniko dirulaguntzaren atal bat; hurrengo urtean kontabilizatu da.

653.954 pezeta inguruko zenbatekoa dago, ohiko eragiketarako egiteko dirulaguntzei dagokiena.

VI.5.9. Ondare dirusarrerak

Kapitulu honetan kontabilizaturiko prozedura eta zenbatekoak berraztertu ondoren, egiaztatu dugu, batzuetan Osoko Bilkurako onespina ageri bada ere, ez direla kontraturik egin Udalaren eta haren jabetzapeko zenbait higiezinak errentarrien artean, hain zuzen ere dirusarrera horien helburu diren haiek.

Gure gomendioa da errentamenduari loturiko harreman guztiek beren kontratua izatea euskarri.

VI.5.10 Diruzaintza

Alor honetan egindako berrazterketa abiaburu hartuta, hona gure gomendioak:

Iatziz zehaztu eta idaztea haren funtzionamenduari buruzko arau guztiak.

Hilero zenbaketa-aktak egitea, udalen fondoe-tako arduradunek sinatuko dituztenak.

VI.5.11. Aurrekontuko Balore Independenteen eta Lagungarrien Liburua (ABIL)

ABILen jasoko dira kontabilitatez kanpoko izaera duten eragiketa guztiak eta Udalarentzat gas-turik nahiz dirusarrerarik ekartzen ez dutelako aurrekontuan jasotzerik ez dauden balore edo fondo guztiak, hain zuzen ere Udala dirubiltzaile edo diruzain hutsa delako.

Liburu horretan erregistraturiko kontzeptu eta zenbatekoak berraztertu ondoren, ohartu gara Udalak soilik eragiketa haiei buruzko idazpenak erregistratzen dituela bertan.

Liburu horren zertarakoa ikusita, ekitaldian sor-turiko emaitzak diruzaintzari dagozkio.

VI.5.12. Hirigintza

Udalak Udal Arau Subsidiarioak ditu. Katastro-en azken eguneratzea 1996an burutu zen.

Udalak ez du Lurzoruaren Udal Ondarea eratu.

Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen arabera, gogorarazi nahi dugu Lurzoruaren Udal Ondarea eratu behar dela eta bertan sartu behar direla hirigintza planea-menduak lurzoru urbanizagarri edo lurzoru urbi-nizagarri programatu gisa sailkaturiko ondarezko ondasun guztiak. Edozein kasutan ere, Ondare horretan sartuko dira lagapenen –lurzoruak edo

eskudirua–, edozein modutako desjabetzaren eta tanteatze eta atzera-eskuratzearen ondorioz eskuratutako ondasun guztiak.

Udal Ondareari buruzko inbentarioa 1995ean burutu zen.

Gure gomendioa da udal ondareari buruzko inbentarioa eguneratzea, bai eta hura kontrolatze-ko sistemaren bat ezartzea ere.

VI.5.13. Musika banda.

Ribaforadako Udaleko musika banda ez da organo autonomo gisa eratu ez eta Udalak parte duen sozietate publiko gisa ere. Hala ere, banda hori Udalaren fondoen kargura ordaintzen da eta, gainera, Udalak entseiuak egiteko lokala eta musika tresnak uzten dizkio.

Ez da inongo harreman juridikorik eratu Udala-ren eta banda horretako kideen artean, ez eta zer-bitzuak emateko edo lan egiteko kontraturik sinatu edo inor ezertarako izendatu ere. Udalak ordain-ketak egiten dizkio banda horri gastuaren egiazta-giririk (nomina/ordainagiria) egin gabe ere.

Gure gomendioa da deskribaturiko egoera hori erregularizatzea, Udalaren eta musika bandaren arteko harreman juridikoa argituz, betiere indarra duen legediari jarraituz.

Iruñean, 1997ko azaroaren 3an


Lehendakaria, Francisco Javier Tuñón San Martín

ERANSKINAK**1. ERANSKINA. FINANTZA-PASIBOEN AZALPENA 1996KO ABENDUAREN 31N**

(pezetatan)

Mailegua/aurrerakina	Zertarako	Hasierako zenbatekoa	Interesa, %	Muga-eguna	96-12-31n ordaintzeko dagoen kapitala
Banco de Crédito Local	Kiroldegia	30.000.000	12,50	1997	2.161.104
Nafarroako Aurrezki Kutxa	Industrialdea, pilotalekua, jubilatuen elkarte eta kultur etxea	30.000.000	MIBOR+0,5	2004	23.250.000
Guztira		60.000.000			25.411.104

OHARRA: 96-12-31n ordaintzeko dagoen kapitalak ez du barne hartzen Nafarroako Gobernuako Nekazaritza Departamentuaren baso birlandaketak egiteko 312.000 pezetako aurrerakina. Eragiketa horrek ez du interes tasarik batere sortzen eta ez du mugaegun jakinik

2. ERANSKINA. UDALAREN ORGANIGRAMA 1996KO ABENDUAREN 31N

F= Funtzionarioa
ABLK= Aldi baterako lan kontratuduna
LKF= Lan kontratudun finkoa

Urantziako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1996ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko azaroaren 25ean eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak egindako Urantziako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1996ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 1997ko azaroaren 26an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Urantziako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1996ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (14. or.).
- II. Helburua (14. or.).
- III. Norainokoa eta mugak (15. or.).
- IV. Iritzia (15. or.).
 - IV.1. Aurrekontuaren kitapenari dagokionean (15. or.).
 - IV.2. Ondare egoeraren azalpena (15. or.).
 - IV.3. Legezketasuna (15. or.).
 - IV.4. Finantza-egoera (15. or.).
- V. Finantza-egoerak. 1996ko aurrekontu-betetzeari (16. or.).
- VI. Ondorioak eta gomendioak (17. or.).
 - VI.1. Aurrekontua betetzeari buruzko iruzkin orokorrak (17. or.).
 - VI.2. Egoera ekonomikoa 1996ko abenduaren 31n (18. or.).
 - VI.3. Udalaren menpeko erakunde autonomoak (18. or.).
 - VI.4. Bestelako iruzkin orokorrak (18. or.).
 - VI.5. Intereseko alor bereziak (19. or.).

Eranskinak

- 1. Finantza-pasiboen azalpena (28. or.).
- 2. Organigrama (28. or.).

I. SARRERA.

Urantzia herriak 1.346 zuzenbidezko biztanle ditu 1996ko maiatzaren 1eko eroldaren arabera.

Urantziako Udalak ondoko mankomunitateetan hartzen du parte:

- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea.
- Montejurrako Ur Mankomunitatea.
- Estellerriko Turismo Partzuergoa.
- Urantziako Turismo Elkarte.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/95 Foru Legearekin, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/90 Foru Legearekin eta Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/84 Foru Legearekin bat etorriz, Kontuen Ganbarak bere jarduketa-programaren barruan sartu du Urantziako Udalaren kudeaketa ekonomiko-finantzarioa eta 1996ko ekitaldiko Gastu eta Dirusarreraren aurrekontu-betetzeari fiskalizatzeko lana.

Aztertutako udal erakundeari ezar dakioken legediaren barruan honako hauek biltzen dira funtsean: Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legea (NTOFL), uztailaren 2ko 6/90 Foru Legea, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa (NTAFL); apirilaren 2ko 7/85 Legea, Toki Araubi-dearen Oinarriak arautzekoa (TAOFL); 1981eko ekainaren 8ko Araua, Toki Ogasunak eraberritzeari buruzkoa (TOA), eta hori garatzeko erregelamendua (TOE), 1981eko abenduaren 17koa; eta orobat, Nafarroako Toki Erakundeei eskuarki ezar dakikeen gainerako arautegia.

Txostenaren xedea hurrengo gaietarako buruz gure iritzia ematea da:

- a) Udalaren eta honen menpeko erakundeen 1996ko aurrekontuaren garapena eta betetzea.
- b) 1996ko abenduaren 31n zegoen ondare-egoera agertzea, eskuarki aplikatzen zaizkion kontabilitate-printzipioen arabera.
- c) Udalaren jarduera ekonomikoa eta finantzarioa legezketasun printzipioaren arabera garatu den ala ez aztertzea.
- d) Entitatearen egoera finantzarioa 1996ko abenduaren 31n.

III. NORAINOKOA ETA MUGAK

Kontuen Ganbarak, bere Jarduketa Programari jarraituz, Urantziako Udaleko 1996ko ekitaldiko fiskalizazio txostena burutu du.

Dirusarrera eta gastuei buruzko kapitulu ekonomikoak gainbegiratzeari eta Udalaren ondare-egoera eta egoera finantzarioa aztertzeari lotu zaie lana. Antolaketa, kontabilitate eta barne kontrolleko alderdiak jorratu dira, eta gorabeheren arabera beharrezkotzat jo ditugun frogak egin dira, udalera lehendik bidalitako galdetegian agerian geratu diren arazoak direla eta. Horretan Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolleko Organo Instituzionalen Koordinazio Batzordeak (KKO) onetsiriko Sektore Publikoaren Auditoretzaren Printzipio eta Arauak aplikatu dira.

Gure lanak izan dituen mugak honako faktore hauek eragin dituzte:

- Udalak daukan barne-kontrol eskasa, bai eta fiskalizaturiko ekitaldian Nafarroako Toki Entitateei aplikatzen ahal zaien legezko eta kontabilitatezko markoa ere, kontabilitatea kudeaketa publikoan erabakiak hartzeko orduan funtsezko informazio-sistema gisa ere hartzen ez duena. Hori dela-eta, azpimarratu behar da Udalaren kontabilitate sistemak aurrekontu-betetzearen jarraipena besterik ez duela egiten (aurrekontu kontabilitatea); ez da kontabilitate orokorrik aurkeztu Udalak ekitaldi bakoitzaren bukaeran duen ondare-egoera azaltzen duenik.

- Udalean ezarri den kontabilitate sistema eskasa, eta horrek, batez ere, inbentarioan du eragina.

- Kontabilitateari buruzko agiriak eta haien agirizko euskarria artxibatzeke modu eskasa; horrek gure lana zaildu du.

- Eragiketen mozketa eskasa.

Txostenean Udalaren kudeaketa hobetzeko egokitzen jotzen ditugun iruzkin eta gomendioak bildu ditugu. Bi eranskin ere jarri ditugu, bat 1996ko abenduaren 31ko finantza-pasiboen zerrenda ematen duena (ikus 1. eranskina) eta bestea entitatearen organigrama agertzen duena (ikus 2. eranskina).

Bigarren seihilekoan idazkariaren baja suertatu zen istripu bat medio; aldi baterako langile batek ordeztu zuen.

Zelaiko lana 1997ko ekainean eta irailean egin zen.

Urantziako Udaleko langile guztien laguntza eskertu nahi dugu, gure lana burutzea erraztu baitute.

IV. IRITZIA.

Bururiko fiskalizazioaren barruan, Urantziako Udalaren 1996ko ekitaldiko gastu eta dirusarreraren aurrekontu-betetzearen egoera aztertu dugu.

Azterketan, Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolleko Organo Instituzionalen Koordinazio Batzordeak (KKO) onetsiriko Sektore Publikoaren Auditoretzaren Printzipio eta Arauak aplikatu ditugu.

Gure azterketatik, honako iritzi hau ondorioztatzen da.

IV.1 AURREKONTUAREN GARAPENARI ETA KITAPENARI DAGOKIONEAN.

Ezin dugu iritzia eman Udalak 1996ko ekitaldian duen aurrekontu-betezeari buruzko zenbatekoak arrazoizkoak diren ala ez esateko ondoko arazoengatik: Udalak ezarritako barne-kontrol eskasa, aurrekontu egozketa okerrak eta kontabilitate akatsak daude, ez dago diruzaintzari buruzko egoerarik 96-12-31n eta aurreko ekitaldien eresultek fidagarritasun mugatua dute.

IV.2 ONDARE EGOERAREN AZALPENEA.

Ondareari buruzko kontabilitaterik eta ondorioz, egoeraren balantzerik ez dagoenez, ez eta 1995eko inbentarioaren eguneratzerik ere, ezin dugu iritzirik eman 1996ko abenduaren 31n Udalak zeukan ondare egoerari buruz.

IV.3 LEGEZKOTASUNA.

Inbertsioen, fiskalitatearen eta aurrekontu-kontabilitatearen inguruko arauak behin eta berriz urratzen dira. Horiexek dira txosten horretan iruzkinduko ditugunak.

IV.4. FINANTZA-EGOERA.

Ezin dugu iritzirik eman Udalaren finantza egoerari buruz 1996ko abenduaren 31n, ezarritako kontabilitate sistema eskasarengatik eta Diruzaintzaren egoerari buruzko agiririk ez egoteagatik.

Ondorio orokor gisa, Kontuen Ganbara honek uste du ohartutako egoera eskas hori dela-eta, beharrezkoa dela ahal den eta azkarren neurri zuzentzaileak hartzea kontabilitatearen, aurrekontuen, diruzaintzaren, inbertsioen eta langileen kontratazioaren esparruetan.

V. FINANTZA-EGOERAK. 1996KO AURRE-KONTU-BETETZEA.

Urantziako Udalak aurkeztu dituen finantza-egoerak, 1996ko ekitaldiari dagozkionak, ondoko hauek dira:

• 1996ko ekitaldiko aurrekontuen kitapenari dagozkion dirusarreraren egoera.

• 1996ko ekitaldiko aurrekontuen kitapenari dagozkion gastuen egoera.

AURREKONTUAREN KITAPENA. 1996KO EKITALDIA (pezetatan)**Gastuak**

Kontua/kapitulua	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Kitaturiko betebeharrak	Kitaturiko ordainketak	Ordaintzeko dagoena	Betetzea, %	Aitorturiko guztizk. %
1. Langileen ordainketak.	36.990.501	922.269	37.912.770	37.912.770	37.812.770	100.000	100	22
2. Ohiko ondasunak erostea	36.500.000	13.018.626	49.518.626	49.518.626	42.312.925	7.205.701	100	28
3. Korrituak	3.292.456	340.874	3.633.330	3.633.330	3.633.330	0	100	2
4. Ohiko transferentziak	6.071.817	902.898	6.974.715	6.974.715	4.630.558	2.344.157	100	4
6. Inbertsio errealak	82.472.763	(14.872.802)	67.599.961	67.599.961	35.653.856	31.946.105	100	38
7. Kapital transferentziak	0	0	0	0	0	0	0	0
8. Finantza-aktiboaren aldaketak	0	0	0	0	0	0	0	0
9. Finantza-pasiboaren aldaketak	5.421.007	4.719.416	10.140.423	10.140.423	10.140.423	0	100	6
Guztira	170.748.544	5.031.281	175.779.825	175.779.825	134.183.862	41.595.963	100	100

Dirusarrerak

Kontua/kapitulua	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Kitaturiko eskubideak	Kitaturiko dirubilketa	Kobratzeko dagoena	Betetzea, %	Aitorturiko guztizk. %
0. Itxitako ekitaldien erresultak	0	0	0	3.044.109	3.044.109	0	-	2
1. Zuzeneko zergak	25.756.115	2.370.055	28.126.170	28.135.170	24.560.701	3.574.469	100	17
2. Zeharkako zergak	9.906.785	2.549.818	12.456.603	12.456.603	10.647.828	1.808.775	100	8
3. Tasak eta bestelako dirusarrerak	9.906.785	2.549.818	12.456.603	12.456.603	10.647.828	1.808.775	100	8
4. Ohiko transferentziak	42.025.713	1.929.418	43.955.131	43.955.131	41.826.079	2.129.052	100	27
5. Ondare dirusarrerak	1.180.000	(175.567)	1.004.433	1.004.433	901.639	102.794	100	1
6. Inbertsio errealak besterenganatzea	0	0	0	0	0	0	0	0
7. Kapital transferentziak	52.900.000	(31.316.229)	21.583.771	21.583.771	14.833.692	6.750.079	100	13
8. Finantza-aktiboaren aldaketak	0	0	0	0	0	0	0	0
9. Finantza-pasiboaren aldaketak	18.800.000	(300.000)	18.500.000	18.500.000	0	18.500.000	100	11
Guztira	170.748.544	(10.522.512)	160.226.032	163.279.141	121.963.332	41.315.809	100	100

VI. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Jarraian ondorioak eta Udalaren antolaketa eta barne kontrolerako sistema hobetzeko, horrela kudeaketan hobekuntza lortuz, egoki iruditzen zaizkigun gomendio orokorrak eman ditugu.

VI.1. AURREKONTUA BETETZEARI BURUZKO IRUZKIN OROKORRAK.

IV. Atalean Iritziari buruz esandakoa kontutan hartuz, aurrekontua betetzetik eratorzen diren honako alderdi hauek azpimarratu nahi ditugu:

Urantziako Udalaren 1996ko ekitaldiko aurrekontua 1996ko apirilean onetsi zen.

1996ko aurrekontu-betetzea ez da onetsi txosten hau egin zen unean; era berean, 1995eko aurrekontu-betetzea ere onetsi gabe dago.

1996ko aurrekontua agiri formal eta huts gisa erabili da, ez ekonomi kudeaketaren gidatzaile gisa.

1996ko aurrekontu-betetzeak, aurreko urteetako erresultak kenduta, 160.235.032 pezetako aitorturiko eskubideak agertzen ditu; aitorturiko betebeharrak, berriz, 175.235.032 pezeta egiten dute. Beraz, aurrekontu-betetzeak 15.544.793 pezetako defizita agertzen du.

Dirusarreraren egoeran (ikus V. atala) kapitulurik garrantzizkoenak ohiko transferentziena eta tase-na, eta bestelako dirusarrerena dira, izan ere ehuneko 27 eta 21eko aitorturiko eskubideak agertzen baitituzte, hurrenez hurren.

Gastuen egoeran (ikus V. atala) aitorturiko betebeharrak buruzko kapitulurik garrantzizkoenak inbertsio errealea eta ohiko ondasunen eta zerbitzuen erosketarena dira, izan ere ehuneko 38 eta 28 egiten baitute, hurrenez hurren.

Aurrekontuko Balore Independenteen eta Lagungarrien Erregistroak ez ditu mota horretako eragiketa guztiak biltzen.

Ez dago Diruzaintzari buruzko ez libururik ez erregistro lagungarriak, egindako kobrantzak eta ordainketak biltzen dituenik.

Orokorrean, azpimarratu behar da aurrekontua ez dela erabiltzen kudeaketa tresna gisa; atzerapen handiarekin onesten da eta, batzuetan, dirusarreraren eta gastuen agirizko euskarria ez da egokia.

Halaber, gastuetarako kredituen alde mugatzailea ez da betetzen eta ez da behar bezala agertzen Udal Diruzaintzaren egoera.

Beste alde batetik, gastuen egozketa okerrak ageri dira, erosketa, langile, korritu eta finantza-pasiboen alorretan.

Gainera, ez dira itxitako ekitaldien erresultak sartu ez dirusarreraren kapituluan ez gastuen kapituluan ere. Udalak aurreko ekitaldiei dagokien kobratzeko eta ordaintzeko zorrari buruzko xehe-tasun bat eskuratu digu; beraz, ezin dugu iritzia eman saldo horiei buruz.

Gure azterketan zehar, agerian jarri da 1996ko aurrekontuaren kitapena ondoko zenbatekoetan aldatu behar zela:

a) Aurreko ekitaldiei zegozkien gastuak eta dirusarrerak bildu dituzenez, 1996ko ekitaldiko aurrekontuaren betetzeak, gutxi gora-behera, gastuetan 196.276 pezeta gehiago bildu ditu eta dirusarreretan 489.553 pezeta gehiago.

b) 1996ko ekitaldian sorturiko gastu eta dirusarrerengatik, urte horretako aurrekontuaren kitapenean sartu ez direnak, aurrekontu horrek, gutxi gora-behera, 1.863.406 pezeta gehiago agertu behar zituen gastuetan eta 1.034.582 pezeta gehiago dirusarreretan.

c) Gure ustez deuseztu beharko liratekeen –hain zuzen ere idazpen bikoiztuak direlako– eta dirusarreretan sartu diren zenbatekoengatik, 2.131.015 pezeta inguruko zenbatekoa.

d) Dirusarreraren kapituluan fidantza pasiboen aldaketak 1997an lorturiko finantziarioa biltzen du, alegia, 18.500.000 pezeta.

e) Dirusarreretan sartu eta gure ustez ABILen erregistratu beharko ziren –hain zuzen ere itzulke-ta fiskalak direlako zeinetan Udala dirubiltzaile hutsa den– zenbatekoengatik, 1.826.987 pezeta.

f) 1996ko ekitaldian jasotako kapital transferenziengatik, urte horretako aurrekontu-kitapenean sartu ez direnak, aurrekontu horrek 31.542.118 pezeta gehiago (21.400.000 pezeta etxebizitza komunitarioko obrei dagozkienak eta 10.142.118 pezeta udal liburutegiko obrei dagozkienak) agertu beharko zuen.

Halaber, aurreko ekitaldietan jaso eta 1996ko ekitaldiko aurrekontuaren kitapenean erregistraturiko kapital transferenziengatik, 1996ko ekitaldiko aurrekontuak dirusarrera gehiago (8.083.613 pezeta, etxebizitza komunitarioko obrei dagozkienak) biltzen ditu.

Aurreko lerroaldeetan azaldutakoarekin bat etorritz, honako hau gomendatzen da:

• *Aurrekontuak Udalaren kudeaketa ekonomiko eta finantzarioaren gida-dokumentua izan*

behar du eta ez derrigorrezko agiri huts bat, legeak inposatutakoa. Aurrekontua erabakiak hartzeko garaian oinarrizko dokumentua izanen bada, kontabilitatea eguneraturik eduki behar da eta aldizkotasan jakin batekin aurrekontu-betetzeari buruzko egoera-agiria aurkeztu behar da. Modu horretara, egindako gastuak eta hitzartu daitekeen gastua ezagutzeko modua izanen da eta, beharrezkoa bada, behar diren aurrekontu aldaketa guztiak egin ahal izanen dira, soberako kontusailak egotea ekidinez.

- *Udalaren aurrekontuen behin betiko onespenerari buruz indarrean dagoen legedian ezarritako epeak betetzea, bai eta aurrekontu horiek kitzatzea ahal den eta azkarren.*

- *Gastuen eta dirusarreraren kontabilizaziok beren sortzapenaren arabera agertu behar du, aurrekontu-betetzearen jarraipen egokia egin ahal izateko, kredituen muga-izaera errespetatuz edo/eta aurrekontu-aldaketak eginez, hala behar izanez gero.*

- *Gastuak eta dirusarrerak behar diren epigrafean kontabilizatu behar dira, jatorri ekonomikoaren arabera; horrela, aurrekontu-betetzeari buruzko zerbakiaren distortsioa saihesti daiteke.*

- *Administrazio lana arrazoizkoagoa izan dadin behar diren bideak urratzea. Beste batzuen artean, administrazioko langile gehiago har daitezke, indarreko legediak ezarritako eginkizunez gainera, ekonomiaren alorrean koordinatze lanetan arituko litzatekeena.*

- *Toki sektore publikorako kontabilitate plan orokorra ezartzea, hori udalak dauzkan langileekin egin ote daitekeen aztertuz; horretarako modurik ez badago, itun bat egin daiteke beste toki entitatearen batekin.*

VI.2. EGOERA EKONOMIKOA 1996KO ABENDUAREN 31N.

- 1996ko abenduaren 31n, jaso dugun informazioaren arabera eta aintzat hartuta txosten honetan biltzen diren iruzkinak, ez dugu modurik Udalaren finantza egoera zehazteko.

Hori dela-eta, ekitaldiko zor biziari eta finantza-kargari buruzko datu batzuk baizik ez dugu emanen.

1. eranskinean azaldutakotik ondorio hau atera dugu: maileguetan eta diru-aurrerakinetan hartutako zorra 53.875.000 pezetakoa da 1996ko abenduaren 31n.

Hona hemen zor horren mugaegunen arabera-ko xehetasuna:

	Pezetak
1997	6.729.167
1998	9.079.167
1999	9.079.166
2000	7.412.500
5 urte baino gehiago	21.575.000
Guztira	53.875.000

1996ko ekitaldiko finantza-karga ondoko zerbatekoetan eman da:

	Pezetak
Zorraren amortizaziorengatik	10.140.423
Korrituengatik	3.633.330
Guztira	13.773.753

VI.3 UDALAREN MENPEKO ERAKUNDE AUTONOMOAK.

Ez dago Udalaren menpeko erakunde autonomo bakarra ere.

VI.4 BESTELAKO IRUZKIN OROKORRAK

VI.4.1 Aurrekontu sistema eta barne kontrola

Udalak erabiltzen duen kontabilitate sistema aurrekontu kontabilitateari dagokiona da. Aurrekontua sailkapen ekonomikoarekin batera aurkeztu eta betetzen da.

Egindako azterketatik, ondoko puntu hauek azpimarratu behar ditugu:

- 1996ko aurrekontua betetzeko oinarririk ez dago.

- Gaur arte, Urantziako Udalaren barne-kontrolako sistema eta administrazio prozedurak ez dira egokiak izan kudeaketa zuzena egiteko. Esan daiteke, gainera, aurrekontua ez dela egin beharreko kudeaketarako agiri adierazlea. Ez da hari buruzko jarraipenik egin ekitaldi guztian eta behar den dokumentazioa kontuak ixteko orduan osatu da.

- Ez dago oinarrizko eragiketetan aplikatu beharreko kontabilitate irizpideak zehazten dituzten ibilbide kontable eta administratibo nagusiei buruzko prozedura idatzirik. Era berean, ez daude idatziz jasota enplegatu bakoitzak dituen eginkizunak.

- Zenbait akats ikusi ditugu zenbait gastu eta dirusarrerara dagozkien kapitulueta egoteko garaian. Akats horiek ez dute garatutako udal jarduerari buruzko informazio ekonomiko eta finantzarioa aldatzen; txostenean zehar zehaztu ditugu.

- Hasierako aurrekontuaren gainean egindako aurrekontu aldaketak ez ditu organo eskudunak onesten, eta ekitaldi bukaeran egiten dira.

- Udalak ez du propio egindako kontabilitate-kudeaketako programarik erabiltzen. Horren ordez, aplikazio informatiko bat erabiltzen du (Microsoft Access datu basea). Ikusi ahal izan dugu aplikazio horrek akats handiak dituela Udal bateko kontabilitate-kudeaketa eramateko, izan ere ez dituelako zuzenean sortzen zenbait erreregistro (esate baterako ABIL liburua); erreregistro horiek, gero, eskuz egin behar dira.

Halaber, ikusi ahal izan dugu oraindik ere kuantak ordaintzen zaizkiola Animsari (Toki Entitateen kudeaketari buruzko pakete informatiko bat daukan enpresa). Udalak pakete hori dirusarreraren kontusail jakin batzuk kudeatzeko baizik ez du erabiltzen.

- Gastuak ez dira erreregistratzen sortzen diren unean. Ondorioz, ohartu gara ez dela eragiketen mozketak egokia egiten; hori dela eta, gastuen eta dirusarreraren zenbait kapitulueta aurreko ekitaldi-koak eta urte berekoak erreregistratzen dira eta, beste aldetik, urte bereko ekitaldiko zenbatekoak hurrengo urtean erreregistratzeko geratzen dira. Zenbateko horiek ez dute garatutako udal jarduerari buruzko informazio ekonomiko eta finantzarioa aldatzen; txostenean zehar zehaztu ditugu.

Aurreko lerroaldeetan zehaztu dugunaren arabera, ondoko gomendioak eman ditugu:

Barne antolaketa eta kontrolerako sistema bat ezartzea, beste gauza batzuen artean, ondokoak eginen dituen:

a) *Kontabilitate agiriak eginen ditu egitateak gertatzen direnean, ez soilik urte bukaeran.*

b) *Kontabilitatea egunean eramatea derrigortuko duena; aldizkotasun jakin batekin liburuen arte egiaztapenak eginen ditu, beraz berdinkatzeetan arazoak izatea ekidinen du.*

c) *Banku-kontuen kontrol egokia eramateko behar diren liburu lagungarrien mantenimendua eginen du.*

- *Kontabilitateko oinarrizko prozedurak bilduko dituen eskuliburu bat prestatzea, bereziki ondokoak garatuko dituen:*

a) *Prozedura bakoitzean aplikatu beharreko kontabilitate irizpideak*

b) *Aldiro koadratzea eta egiaztapenak egitea.*

c) *Ixteko eragiketak*

d) *Saldoen azterketa.*

- *Gastuak eta dirusarrerak sortzapenari jarraituz kontabilizatzea aurrekontu betetzean; gastuen eta dirusarreraren aurrekontu-egozketa jatorri ekonomikoaren arabera kontabilizatzea.*

VI.4.2 Ondasun higiezinak eta komunalak. Udalaren inbentarioa.

Azken bost urte hauetan ez da egin Udalaren jabetzapeko ondasunen inbentariarik.

Beste aldetik, Udalak eskrituraturik eta Jabetzaren Erregistroan erreregistraturik dauzka bere jabetzapeko ondasun higiezinak eta komunal gehienak.

Ondokoak gogoratu behar ditugu:

- *Udalaren jabetzapeko ondasunen inbentarioa eguneratu behar da.*

- *Udal inbentarioa egokitu behar da, Udalaren jabetzapeko ondasunak behar bezala bil ditzen.*

- *Behar diren neurriak hartu behar dira ondasun guztiak eskrituratzeko eta Jabetzaren Erregistroan erreregistratzeko.*

VI.5 INTERESA DUTEN BERARIAZKO ZENBAIT ALOR.

VI.5.1 Langileen soldatak

Hauek dira 1996 ekitaldiko langileen kapituluari buruzko xehetasunak:

	(pezetak)
	Kitaturiko betebeharrak
Oinarrizko ordainsariak	3.353.836
Bestelako sariak	934.558
Lan kontratupeko langileak	18.441.021
Kontratupeko langileak	563.761
Gizarte aseguruak	8.537.768
Klase pasiboak	6.081.826
Guztira	37.912.770

Langileriaren kapituluak gastuetan aitorturiko guztizkoaren ehuneko 22 egiten duten aitorturiko betebeharrak biltzen ditu.

Laburbilduz, 1996ko abenduaren 31n, hauek dira Udalean lanean ari diren langileak:

Funtzionarioak	4
Aldi baterako lan kontratatatuak	4
Administrazio kontratua dutenak	1
Guztira	9

Langile funtzionarioak honela banatuta daude:

Diruzaina	1
Etkezaina	2
Garbitzaileak	1
Guztira	4Guztira

Udaleko Idazkaritza lanak administrazio kontratua duten langileek egite dituzte.

Diruzaintza Udalak berak eramaten du.

Ez dago idatziz jarririk enplegatu bakoitzak zer eginkizun dituen. 2. eranskinean, organigrama gutxi gora-beherako bat eman dugu.

Arlo honetan datuak sortzeko eta kontabilizatzeko jarraituriko prozeduren azterketa eginda, ondokoa geratu da agerian:

- Ez dago idatziz jarririk nomina egiteko eta kontabilizatzeko jarraitzen diren prozedurak.

- Enplegatu bakoitzari buruzko administrazio-agiri guztiak biltzen dituzten espediente banakatuak daude.

- Langile funtzionarioen nominak Udalak egiten ditu hilabetero eskuz; gainerako langileen nominak kanpoko enpresa batek egiten ditu. Nomina horien gaineko berrikuspenak egiten dira aldizkotasun jakin batekin eta azterketa hori idatziz jasozten da.

- Kontzeptu horiei buruzko eragiketen mozketak ez da behar bezala egin. Gure azterketan ohartutako kontzeptuen gutxi gora-beherako zenbatespen baten arabera, 1996 urteari zegozkion 455.546 pezeta erregistratu ziren 1997an.

- Udaleko langileek egiten dituzten aparteko lan orduak nominatik kanpo ordaintzen dira eta ez da atxikipenik egin.

- Ez da enplegatu bakoitzarentzako nominaren aldizkako laburpenik egiten.

- Oinarrizko lansarien artikuluan funtzionario baten nomina besterik ez da erregistratzen. Gainerako langile funtzionarioen lansariak lan kontratueko langileen artikuluan erregistratzen dira.

- Udalkideen lansariak bestelako lansarietan sartzten dira. 800.000 pezeta egiten dituzte eta ez dute PFEZaren atxikipena egin beharrik.

- Udalak nominak burutzeko orduan plantila organikoan agertzen direnez bestelako graduak aplikatzen ditu. Halaber, egiaztatu ahal izan dugu langileek aparteko sariak jaso dituztela eginkizun lagungarriak egiteagatik, Udalaren barne funtzionamendurako beharrezkoak direnak, nahiz eta Osoko Bilkuraren erabakirik ez dagoen horretarako.

- Udalarekin lan harremana duten langile batzuk plantilan sartzeko orduan ez zaio indarra duen legediari jarraitu.

- Aurretik azaldutako guztia dela eta, Udalak ez ditu Foru Ogasunetik eskuratu 718.313 pezeta-ko PFEZaren kuotak, 5.799.923 pezetako zenbatekoen oinarriari dagozkienak.

Aurreko lerroaldetako iruzkinei jarraituz, ondoko gomendioak eman nahi ditugu:

- *Enplegatu bakoitzaren eginkizunak idatziz ematea.*

- *Nominen prozesua kontabilitatean integratu-ko duen aplikazio informatikoren bat erabiltzea; horrek langileen kudeaketaren jarraipen prozesua eta kontrola hobetuko luke.*

- *Hilabetero nominetako, kontabilitate dokumentuetako eta diruzaintzako zenbatekoak adostea.*

- *Urtean behin nominaren laburpena egitea, hori jasoz behar diren sinadurak edo ontzat ematekin.*

- *Indarreko legedia betetzea langileak kontratzeari dagokionez eta zerga legedia betetzea.*

VI.5.2 Ohiko ondasunen eta zerbitzuen erosketa

Erosketek eta zerbitzuengatikoko gastuek guztizko gastuaren ehuneko 28 egiten dute, ondoko azalpenean ikusten den bezala:

	(pezetak)
	Kitaturiko betebeharrak
Bulego gastuetarako ohiko zenbatekoa	4.361.967
Higiezinetakoko gastuak	11.265.076
Dietak, bidaiak eta lekualdaketak	776.947
Zerbitzuen funtzionamendurako gastu bereziak	20.803.484
Inbertsioen kontserbazioa eta ohiko konponketak	2.367.803
Zehaztu gabeko gastuak eta zergak	9.272.855
Garraio eta telekomunikazioak	670.494
Guztira	49.518.626

Hona hemen zerbitzuen funtzionamendurako gastu berezien xehetasunen koadroa:

	Pezetak
Herriko festak; kultur eta kirol jarduerak	12.895.920
Argiteria publikoa eta igerilekuen gastuak	5.996.234
Zerbitzuen kontratuak	1.121.916
Material tekniko eta zuhaitzak	645.671
Erregaiak	143.743
Guztira	20.803.484

Kontabilizaturiko prozedura eta zenbatekoak aztertuta, ondokoak egiaztatu ahal izan ditugu:

- Aurretiko baimenik ez dago gastuak ordaintzeko ez eta gaiak jaso eta albaran batekin erkatzeko kontrolik ere. Bestela kontrol horren aztararik ez dago.

- Dieten, garraioen eta lekualdaketen zenbatekoa erabat dagokie udalkideen lansariei.

- Herriko festen eta kultur eta kirol jardueren izenburupean 1.118.000 pezetako zenbatekoak erregistratu dira, enplegatuei herriko festetan lan batzuk egiteagatik ordaindutakoak.

- Halaber, zerbitzu kontratuen izenburupean honako hauek ohartu ditugu:

a) Lan aholkularitza baten zerbitzuetako gastua dago. Udalak ez du inongo kontratupeko harremanik aholkularitza horrekin.

b) 145.578 pezeta jarri dira kontu korranteetako korrituengatik, izan ere bankuko zorpekoari dagokiona, korritu gisa erregistratu behar zirenak.

Zehaztu gabeko eta uste gabeko gastuen izenburupean, 7.367.765 pezeta ageri dira, kontzeptu ezberdinei dagozkienak eta ondoko sailkapenaren arabera erregistratu beharko zirenak:

	Pezetak
Festak, kultur jarduerak	3.476.923
Kale eta bideen konponketak	597.381
Zerbitzu kontratuak	256.462
Bulego gastuak	165.390
Langileen lansariak	2.222.016
Ohiko transferentziak	649.593
Guztira	7.367.765

Zerbitzu kontratuak Udalak egindako udal errolda egitearen gastua biltzen du; ez dago gastuaren faktura edo ziurtagiririk.

- Batzuetan ordainagiri jakin batzuen agirizko euskarria ez da aski.

- Orokorrean, ez da indarreko legedia bete zerbitzu edo/eta mantenimendu kontratuei dagokienez.

- Orokorrean, ordainagiriak ez daude behar bezala baimenduta.

- Ohartu dugu Udaleko zenbait langilek beren zerbitzuak lan orduz kanpo eman dutela. Lan horien truke ordaindu egin zaie, baina ez da gastuaren agirizko euskarririk.

- 1996ko ekitaldian eragiketen mozketak desgokia egin da. Gure azterketan oharturiko kontzeptuen gutxi gora-beherako zenbatespenak 196.276 pezeta islatzen ditu 1996an aurreko ekitaldiei dagozkienak, eta 1996 ekitaldiari dagozkion 1.407.860 pezeta kontabilizatu dira 1997an.

Zehaztutakoari jarraituz, hona hemen gure gomendioak:

- *Kontabilitateko agiriek beti behar duten egiaztapen euskarria izan behar dute aldean.*

- *Kontabilitate agiriekin batera behar den baimena jarri behar da beti.*

- *PFEZari eta BEZari buruzko zerga-araudia hertsiki bete behar da.*

- *Kontratuei buruzko legea eta kontratazio publikoari buruzko gainerako araudia hertsiki aplikatu behar da.*

VI.5.3. Ohiko transferentziak

Gastuen aurrekontuko ohiko transferentzien kapituluak guztizko gastuaren ehuneko 4 egiten du. Hona hemen xehetasunak:

	Pezetak
Lurraldeko erakundeei	3.712.222
Irabazi asmorik gabeko erakundeei	2.291.993
Familiei	970.500
Guztira	6.974.715

Prozedurak eta kontabilizatutako zenbatekoak azterturik, hau ohartu dugu:

- Lurraldeko erakundeei egindako transferentziek 2.395.522 pezetako zenbatekoa biltzen dute gutxi gora-behera, kanpoko agenteek (ANIMSA eta hirigintzako aholkularitza) emandako zerbitzuengatik eta ohiko ondasun eta zerbitzuen erosketa gisa erregistratu behar zirenak.

- Irabazi asmorik gabeko erakundeei eginiko transferentzien zenbatekoa ohiko ondasun eta zerbitzuen erosketa gisa erregistratu behar zen, izan ere informatika ekipoen mantenimendua, azterlanak eta katastro lanak biltzen baitzituen.

VI.5.4. Inbertsio errealak.

67.599.961 pezetako onartutako betebeharrak izanda, gastuen aurrekontuaren betetze osoaren ehuneko 38 da. Haien betetzeak behin betiko aurrekontuaren ehuneko 100 egin du.

Hona hemen 1996ko ekitaldian eginiko inbertsioei buruzko zenbait xehetasun:

	Pezetak
Udal liburutegia	27.474.822
Etxebizitza komunitarioa	23.737.582
Ur komunalaren hornidura	14.065.852
Kirol instalazioen berrikuntzak	2.321.705
Guztira	67.599.961

Aztertu ditugun lanak zenbateko handienei zegozkienak dira. Gure berrikuspenerako funtsezkoa da espedienteak artxibatzeko sistema; ia beti espedienteak ez daude osaturik eta horregatik ezin izan dugu egiaztatu espediente batean egon behar duen dokumentazio guztia ote dagoen.

A) Udal liburutegia.

Udal liburutegiaren lanak dira inbertsio errealen kapituluko kontusailik garrantzitsuena; 27.474.822 pezetako gastua dute, alegia gastu osoaren ehuneko 41.

Obra hori aztertu ondotik, ondokoak ohartu ditugu:

- 1996ko abuztuan Nafarroako Gobernuko Hezkuntza, Kultura, Kirol eta Gazteri Departamen-

tuak 23.642.276 pezetako dirulaguntza eman zion udalari kulturetxea eta bestelako udal kulturaguneak eraiki eta hornitzeko. Dirulaguntza horrek aurkeztutako eskaeraren espedientean aurkitu ez duguna— ehuneko 50 egiten zuen. Diru horretatik 13.500.158 pezeta Udalak eskuratu ditu 1996an; gainerakoa 1997ko ekitaldian eskuratuko du.

- 1996ko abuztuaren 1ean, Udaleko Idazkari-tzak txostena egin zuen, beste gauza batzuen artean, ondokoaren egiaztapena eginez:

a) Aurrekontuetan diru kontsignazio nahikoa dago gastuari 1996ko ekitaldian aurre egiteko.

b) Kontratazio organoa Udaleko Osoko Bilkurak izan behar du.

c) Kontratazio organoak ez du proiektua onartu.

d) Kontratazio organoak administrazio klausula partikularren pleguak onetsi behar ditu.

e) Nahiago den esleipen sistema lehiaketa edo enkantea izan da, baina ikusirik obrak 1996ko abenduaren 31 baino lehen bukatu behar direla emandako dirulaguntza galduko ez bada, zuzeneko esleipenaren prozedura erabil daiteke; horretarako, gutxienez, hiru eskaintza eskatu behar dira.

- 1996ko abuztuaren 4an, alkateak obretarako lizentzia eman zuen.

- 1996ko abuztuan, alkateak zuzenean izendatu zuen obren zuzendaritzaren ardura izan den aparejadorea. Espedientean ez da ageri proiektuaren ardura hartzen duen arkitektuaren izendapenik ez eta bien arteko kontratu bakar bat ere.

- 1996ko abuztuaren 26an, alkatearen erabakiaren bidez, administrazio baldintzen plegua onetsi zen. Obra burutzeko zenbait aldi ezarri ziren:

a) Indusketa

b) Pilotajea

c) Zimentazioa

Halaber, zuzeneko esleipenaren prozedura erabiltzen da, gutxienez hiru eskaintza eskatuta aldi bakoitzerako.

- 1996ko abuztuaren 31n eta 1996ko irailaren 16an alkateak, zuzenean, lehenbiziko eta bigarren aldiko obrak esleitu ziren, hurrenez hurren. Horretarako, hiru eskaintza eskatu ziren eta zenbateko baxuenekoa hautatu zen. Bi aldi horietan ondokoak ohartu ditugu:

a) Obren zuinketaren eta obren hasieraren akta ageri da.

b) Espedientean ez dira ageri ez behin behineko eta behin betiko jasoketaren akta, ez esleipen hartzailearekin sinaturiko kontraturik.

- 1996ko azaroaren 3an, alkateak, zuzenean, obraren hirugarren aldia esleitu ziren, bost eskaintza eskatu eta aurkeztutako bakarra hautatu ondoren. Hirugarren aldi horretan ondoko alde hauek ohartu ditugu:

b) Obren behin behineko jasoketaren akta 1996ko abenduaren 30ekoa da. Klausulen pleguaren arabera, obrek 1996ko azaroaren 29an bukatu behar zuten.

Ondotik eman dugu BEZik gabe kontabilizaturiko zenbatekoen laburpena:

	(pezetatan)	
	Esleituriko aurrekontua	Behin betiko egiaztapena
1. aldia – indusketa	482.700	520.572
2. aldia – pilotajea	2.366.000	2.442.000
3. aldia – zimentazioa	13.920.164	13.920.164
Guztira	16.768.864	16.882.736

- 1996ko abenduaren 27an laugarren aldi bateko (aurrefabrikaturiko egitura) obrak esleitu ziren, nahiz eta alkatetzaren ebazpenak hiru aldi ezarri.

Alkateak egiten du esleipen hori zuzenean, lau eskaintza eskatu eta aurkeztutako bakarra aukeratu ondoren, alegia hirugarren aldiko obrak burutu zuena bera. Laugarren aldian ondoko hauek ohartu ditugu:

a) Espedientean ez da ageri zuinetaren eta obren hasieraren akta, ez eta esleipena hartu duen enpresarekin sinaturiko kontratua ere.

b) Esleipenaren zenbatekoak 7.373.397 pezeta egiten ditu (BEZa gabe). Lehenbiziko ziurtagiria 4.571.422 pezeta (BEZa gabe) ordainduta jaso zen.

Obra honi buruzko laburpen gisa, ondokoak azpimarratu daitezke:

- Arkitektoen Elkargoak ontzat emanik aurkitu dugun lehenbiziko proiektua obrak hasi eta gerokoa da (ontzat ematea 96-12-10ekoa da); 50 milioi pezetakoa da.

- Hasierako proiektua zabaldu beharra suertatu zen eta azterketa geoteknikoa egin ondoren, ohartu ziren aukeratutako tokiak baldintza muturrekoenak eta aurkakoenak zituela; beraz, eskaera berria egin zitzaion Nafarroako Gobernuari 70 milioiko aurrekontuarekin. Eskaera horrek 1996ko abenduko data du.

- Obra horretako teknikariek esandakoaren arabera, obra, guztira, 132 milioi kostatuko da.

Ondorioz, aurreko lerroaldeeta baldintzei buruz aipatu ditugunak gora-behera, azpimarratu behar da hasiera eman zitzaiola obrari erabat definitu gabe zegoenean eta lurzoruaren azterketa egin gabe. Horrek ekarri du amaierako proiektuak 50 milioitik 132 milioira pasatzea.

B) Etxebizitza komunitarioa

1991n etxebizitza komunitarioa eraikitzea planteatu zen. Nafarroako Gobernuarekin lorturiko akordioaren arabera, 31 milioi pezetako kostua izanen zuen, Nafarroako Gobernuak osorik finantzaturik. Gero, gastua 13 milioi gehiagora zabaldu zen.

1994an beste akordio bat sinatu zen, 18 milioiko bigarren aldi bat proiektatzeko bidea ematen duena. Nafarroako Gobernuak horien erdiak finantziaturiko zituen.

Geroago, proiektua zabaldu eta etxebizitza egoitza bihurtzen da. Horretarako dezenteko aldatetarako behar izan ziren.

Espedientean sartu ziren ziurtagirien arabera, obraren amaierako kostuak 88.624.946 pezetaraino hartu zuen; aurrekontuetatik abiatuta, ezin da zehaztu horietatik zenbat dagozkion ekitaldi bakoitzari.

1996an Udalak obra horretako ondoko zenbatekoak erregistratu ditu:

	Pezetak
Amaierako aldia	18.116.738
Arkitektura-oztopoak kentzea	620.844
2. aldiko obren kontura	5.000.000
Guztira	23.737.582

Obra horretarako Udalak Nafarroako Gobernuaren laguntza hau izan du:

	Pezetak
Aurreko ekitaldiak	53.769.197
1996ko ekitaldia	8.083.613
Ordaintzeko dagoena	21.400.000
Guztira	83.252.810

21.400.000 pezetako dirulaguntza ekipamendurako emakida bati dagokio, Udalak 1996an erregistratu ez duena.

Zaharretxe hori 1997an zabaldu da. Horren kudeaketa Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Manko-

munitateak burutuko du. Udala ez da ezertan ere sartuko egoitza horren kudeaketan.

Egindako azterketatik ondoriozta daiteke esleipen guztiak zuzeneko esleipenak izan direla. Ez dugu inon aurkitu plikak irekitzeko ekitaldiko aktarik ez eta esleipenari buruzkorik ere.

Aurreko kasuan bezala, 30 milioi pezetako hasierako aurrekontua zuen obra batek 89 milioi pezetako gastua izan du, gutxienez, proiektuari ekin baino lehen obra definitu gabe zegoelako.

C) Ur komunalaren hornidura.

Urantziako udalak Montejurrako Mankomunitateari eskatu zion nekazaritza ustiategi bat urez hornitzeari buruzko proiektua egin zezan. Proiektua egin ondoren, hona hemen balorazioa:

	Milioi pezetatan
Gauzatze materialaren aurrekontua	14,6
Kontrata bidez lanak gauzatzearen aurrekontua	19,6
Administrazioak ezagutzeko aurrekontua	22,0

Ez dago berezko espedienterik; esleipen zuzenaren bidez obra hori burutzen lan egin duten pertsonen edo enpresen faktura batzuk ageri dira.

1996an obra horretarako gastu gisa 14 milioiko aurrekontua erregistratu da.

Aurreko A), B) eta C) idazatietan azaldutakotik ondokoak ondoriozta daitezke:

- Urantziako Udalak kontratazio espedientearen aldi guztietan, zorrotasun gutxi erabili duela kontratuei buruzko indarreko legea aplikatzeko orduan.

- Inbertsioen esparruan, plangintzarik ez dago; batzuetan berezko kontratazio espedienterik ez dago eta beste batzuetan halako espediente batean oinarritutakoak diren agiritako asko falta dira; kontratazio zuzenera jotzen da sistematikoki; kontratuak ez dira formalizatzen eta obrak burutzeko orduan dagoen kontrol eskasak agerian uzten du kontratuei buruz indarra duen legedia ez dela inoiz betetzen.

Hori guztia dela eta, hauek dira gure gomendioak:

- *Kontratuei buruzko Foru Legea eta kontratazio publikoari buruzko gainerako arautegia hertsiki aplikatzea.*

- *Inbertsioen betetze egokia bermatuko duten barne-kontrolako tresnak ezartzea, prozedurazko*

eta legezkotasunezko oinarrituko ikuspegiak bilduz, haien kudeaketa zuzenerako beharrezkoak direnak, bai alde ekonomiko eta razionaletik, bai legezkotasunaren printzipioaren menpe egoteari dagokionean.

- *Inbertsioei buruzko espediente bat ezartzea, uneoro inbertsio horien egoera eta gora-beherak ezagutu ahal izateko.*

VI.5.5. Finantza-pasiboen aldaketak (gastuak)

1996ko ekitaldian, udalak 1995ean Nafarroako Rural Kutxari eskatu zion 5.000.000 pezetako diruzaintzako mailegua amortizatu da. Egiaztatu ahal izan dugu maileguaren lehenbiziko amortizazioa (1.750.000 pezeta ingurukoa), sortzapenaren arabera, aurreko ekitaldian erregistratu behar zela.

VI.5.6. Tributuen bidezko dirusarrerak

1996ko aurrekontuaren kitapenaren arabera, tributuen bidezko dirusarrerak ondoko betetzea izan dute:

Kapitulua	(en pesetas)		
	Behin betiko aurreikuspena	Kitaturiko eskubideak	Kitaturiko dirubilketa
Zuzeneko zergak	28.126.170	28.135.170	24.560.701
Zeharkako zergak	12.456.603	12.456.603	10.647.828
Tasak eta bestelako dirusarrerak	34.599.924	34.599.924	26.149.284
Guztira	75.182.697	75.191.697	61.357.813

Tributuen bidezko dirusarrerak Udalaren dirusarrera guztien ehuneko 46 egiten dute.

Ondoko koadroan kapitulu horien betetzea eman nahi izan dugu, zergagaien arabera sailkatuta:

Tributu mota	Kitaturiko eskubideak (pezetak)	Kitaturiko guztizkoaren %
Landa kontribuzioa	5.055.827	7
Hiri kontribuzioa	16.390.409	22
Lizentzia fiskala	6.306.666	8
Abeltzaintza kontribuzioa	382.268	1
	28.135.170	
Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga	7.685.385	10
Telefónicaren kanona	69.942	1
Zirkulazio zerga	4.080.276	5
	12.456.603	

Zerbitzuak ematea	3.077.708	4
Probetxamendu berezietako tasak	1.918.709	2
Xede fiskalik gabeko arbitrioak	43.375	1
Diru-itzulketak	958.165	1
Herrilurren probetxamendua eta bestelako dirusarrerak	28.601.967	38
Guztira	34.599.924	100

Zenbateko eta tasa horiek Udalak onetsitako ordenantzen arabera biltzen dira.

Aplikatzen diren kontrol prozedurak eta alor honetan kontabilizaturiko zenbatekoak aztertuta, honako hau ohartu dugu:

- Dirubilketako agenteari ez zaio behar den fidantza edo abala eskatu, eta ez da inolako kontraturik egin berarekin.

- Udalak 1996ko dirusarrera gisa zirkulazio zergen kontzeptua erregistratu ditu; 1995ean erregistratu ditu urteko errolda aplikatu gabe.

1996ko errolda erregistratu izan balu, kontzeptu horrengatik dirusarrerak 237.866 pezeta gehiago egingen lukete.

- Udalak errekaru batzuk aplikatu ditu lizentzia fiskaletan 1996ko ekitaldiko ordenantzetan legez onetsitakoak gainditzen dituztenak. Errekargu horiek ez daude inongo legezko xedapenetan arauturik.

- 1996ko ordenantza fiskalak ez dira Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu, indarra duen legediak ezartzen duen bezala.

- Udalak, akats bat dela medio, dirusarrerak bikoiztu ditu 2.131.015 izateraino herrilurren probetxamenduari eta bestelako dirusarrereiei dagozkie atalean. Hori dela eta zenbateko hori kapitulu horretatik kendu beharko litzateke.

- Ez erroldak, ez horien beranduagoko aldaketak ez ditu Osoko Bilkurak onesten.

- Zeharkako zergen izenburupean, 690.942 pezetako zenbatekoa jarri da, Telefónicak udalerriko lurgaina eta lurra erabiltzeari zor zaiona: hor ez, tasen eta bestelako dirusarreraren atalean erregistratu behar zen.

- Halaber, kontzeptu horiei buruzko eragiketen mozketa ez da behar bezala egin. Buruturiko lanaren arabera, hona hemen kontzeptu horien gutxi gora-beherako zenbatespena:

a) 1995ean sortu eta 1996ko kontabilitatean erregistratu direnak:

	Pezetak
Teléfonicaren kanona	142.298

b) 1996an sortu eta 1997ko kontabilitatean erregistratu direnak:

	Pezetak
Teléfonicaren kanona	140.586
Iberdrolaren kanona	769.569
Diru-itzulketak	124.427
Guztira	1.034.582

- Herrilurren probetxamenduari eta bestelako dirusarrereiei buruzko atalean 5.234.410 pezeta inguru egiten duten zenbatekoak sartu dira Estatuaren dirulaguntzei dagozkienak ohiko transferentzia gisa erregistratu behar zirenak.

- Egiatzatu ahal izan dugu zenbateko garrantzitsuak daudela itxitako ekitaldien erresulter dagozkienak eta beraz erregistratuta egon behar zutenak baina ez daudenak.

- Aurreko ekitaldien erresulter eta urteko ekitaldiaren ondorioz, dirusarrera fiskaletatik heldu diren zenbatekoak erregistratu dira. Egindako azterketatik abiatuta, gure ondorioa da haietako batzuk oso zaharrak direla eta horregatik kobrazinak; horren ondorioz, akats egindako kontusaitara aldatu beharko lirateke. Hala ere ezin izan da haien zenbatekoa zenbatetsi.

- Era berean, ohartu ahal izan dugu Udalak ez duela errekarurik aplikatzen tributu zorrak ez ordaintzeagatik.

- Ez dago idatzizko araurik erroldetan euskarria duten tributu-dirusarrera batzuen kobrantza erregulatzen duenik.

Aurreko lerroaldeetan komentatutakoaren arabera, hona gure gomendioa:

- *Dirubilketa agentearen egoera legeztatzea.*

- *Finantza entitateei kobratzeko bidaltzen zaizkien errolden jarraipena eta kontrola burutzea.*

- *Zerga-dirusarrereiei eta haien aldaketei dagozkien erroldak onetsi eta kontrolatu behar dira, aurrekontuetan erregistratutako zenbatekoak zergadunei benetan igorritakoarekin alderatuz.*

- *Zergadunei igorritako zenbatekoak Udalaren Osoko Bilkurak legez onetsitakoak izan daitezela.*

- *Ordenantza fiskalak NAO n argitaratu behar dira, indarreko legediak ezartzen duen bezala.*

- *Kobratzeko dauden zenbatekoak kobratu ote daitezkeen azterketa erabatekoak egitea, aldiro.*

- *Atzerapenagatiko gainkargua, kobratzeko borondatezko epearen ondokoa, indarreko legediak ezartzen duenera egokitu behar da.*

- *Udalak dirusarreraren aurrekontu-betetzeari buruzko liburuan erregistratzen dituen dirusarrerak eta Nafarroako Gobernuak eramaten duen banaketan kontua aldiro adostea, kontabilitate idazpenak ez bikoizteko, ahal dela.*

- *Aurreko ekitaldietako erresulta guztiak ekitaldiko aurrekontuen likidazioan sartzea.*

VI.5.7. Ohiko transferentziak.

Ohiko transferentziek kitaturiko eskubideen 43.214.800 pezetako zenbatekoa biltzen dute. Dirusarrera guztien ehuneko 27 egiten dute. Zenbateko horrek kontzeptu hauek biltzen ditu, batez ere: Funtzionarioen Montepioa, Toki Ogasunen Lurraldeko Fondoaren partehartzea, lurralde-erakundeen bestelako ohiko dirulaguntzak eta Estatuko tributuen partehartzea.

Aplikaturiko kontrol prozedurak eta kontabilizaturiko zenbatekoak aztertu ondoren ondokoa ohartu dugu atal honetan:

1996ko dirusarreraren aurrekontuaren kitapenean, 1995ean sorturiko zenbait dirusarrera bildu dira.

Burutu dugun lanari jarraituz, hona hemen kontzeptu horien gutxi gora-beherako zenbatespena:

	Pezetak
Dirulaguntzak	249.548
Gordailuen korrituak	97.707
Guztira	347.255

VI.5.8. Kapital transferentziak

Kapital transferentziek 21.583.771 pezeta egiten dute, hau da, dirusarrera guztien ehuneko 13; lurraldeko erakundeek obrak egiteko emaniko dirusarrerak biltzen dituzte.

Aplikaturiko kontrol prozedurak eta kontabilizaturiko zenbatekoak aztertu ondoren, honako hau ohartu dugu alor honetan:

Ez da bildu 1996an obra bat egiteko emaniko 10.142.118 pezetako dirulaguntzaren atal bat.

8.083.613 pezetako zenbatekoa aurreko ekitaldietan emaniko kapitaleko dirusarrerei dagokie, etxebizitza komunitarioa dela eta.

VI.5.9. Ondare dirusarrerak

Kapitulu honetan kontabilizaturiko prozedura eta zenbatekoak berraztertu ondoren, egiaztatu dugu, orokorrean, ez du kontraturik egin Udalaren eta haren jabetzapeko zenbait higiezinetak errentarien artean, hain zuzen ere dirusarrera horien helburu diren haiek.

Gure gomendioa da errentamenduari loturiko harreman guztiek beren kontratua izatea euskarri.

VI.5.10. Finantza pasiboen aldaketak (dirusarrerak)

Udalak 1996ko ekitaldiko aurrekontuaren kitapenean 18.500.000 pezetako zenbatekoa erregistratu du kontzeptu horren pean.

Ikusi ahal izan dugu zenbateko hori Nafarroako Rural Kutxatik lorturiko 13.500.000 eta 5.000.000 pezetako bi maileguei dagokiela. Hala ere, bi mailegu horien polizen gauzatzea 1997ko urtarrilean egin zen; hori dela eta urte horretako dirusarrera gisa har daitezke eta beraz ezin dira 1996ko ekitaldiko aurrekontuaren kitapenean islatu.

1996ko maiatzean, Nafarroako Aurrezki Kutxak 5.000.000 pezetako mailegu bat eman zuen, Udalaren kontabilitate kontuetan erregistratu ez dena. Horrenbestez, kontu horretako saldoari zenbateko hori gehitu behar zio. Mailegu hori diruzaintzako mailegua dela esan daiteke, nahiz eta haren mugaeguna 1999 urtean dagoen, nahiz eta diruzaintzako maileguak, indarreko legediari jarraituz, urte berean amortizatu behar diren.

VI.5.11. Diruzaintza

Udalak ez digu informaziorik eman 1996ko abenduaren 31ko diruzaintzaren egoerari buruz. Ekitaldi osoko diruzaintzaren mugimendu bat ere ez digute eman.

VI.5.12. Aurrekontuko Balore Independenten Lagungarrien Liburua (ABIL)

ABILen jasoko dira kontabilitatez kanpoko izaera duten eragiketa guztiak eta Udalarentzat gas turik nahiz dirusarrerarik ekartzen ez dutelako aurrekontuan jasotzerik ez dauden balore edo fondo guztiak, hain zuzen ere Udala dirubiltzaile edo diruzain hutsa delako.

Liburu horretan erregistraturiko kontzeptu eta zenbatekoak berraztertu ondoren, ohartu gara Udalak soilik eragiketa haiei buruzko idazpenak erregistratzen dituela bertan.

Liburu horren zertarakoa ikusita, ekitaldian sorturiko emaitzak diruzaintzari dagozkio.

Gure lanean zehar, ikusi ahal izan dugu liburu hori eskuz sortu behar dela, izan ere VI.4.1. atalean adierazi dugun bezala, udalak informazio hori ematen ez dion aplikazio informatikoa erabiltzen ari delako.

Halaber, ikusi ahal izan dugu Udalak hauxe sartu duela dirusarrerei buruzko bere kontuetan: BEZa dela eta egin beharreko itzulketaren zenbateko, alegia, 1.826.987 pezeta. Eta horretarako 1997ko ekitaldian eskuratu beharreko itzulketa eskatu du. Eragiketa hori ezin da dirusarreratzat hartu; beraz, uste dugu zenbateko horren betetze-aurrekontua egokitu behar dela.

VI.5.13. Hirigintza

Udalak Udal Arau Subsidiarioak ditu. Katastroen azken eguneratzea 1996an burutu zen.

Udalak ez du Lurzoruaren Udal Ondarea eratu.

Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen arabera, gogorarazi nahi dugu Lurzoruaren Udal Ondarea eratu behar dela eta bertan sartu behar direla hirigintza planeamenduak lurzoru urbanizagarri edo lurzoru urbanizagarri programatu gisa sailkaturiko ondarezko ondasun guztiak. Edozein kasutan ere, Ondare horretan sartuko dira lagapenen –lurzoruak edo eskudirua-, edozein modutako desjabetzaren eta tanteatze eta atzera-eskuratzearen ondorioz eskuratutako ondasun guztiak.

Ez dago Udal Ondareari buruzko inbentariarik.

Gure gomendioa da udal ondareari buruzko inbentarioa egitea, bai eta hura kontrolatzeko sistemaren bat ezartzea ere.

Iruñean, 1997ko azaroaren 6an


Lehendakaria, Francisco Javier Tuñón San Martín

ERANSKINAK**1. ERANSKINA. FINANTZA-PASIBOEN AZALPENA 1996KO ABENDUAREN 31N.**

(pezetatan)

Mailegua/aurrerakina	Zertarako	Hasierako zenbatekoa	Interesa, %	Mugaeguna	96-12-31n ordaintzeko dagoen kapitala
Nafarroako Aurrezki Kutxa	Diruzaintza	5.000.000	MIBOR+0,5	14-05-99	5.000.000
Nafarroako Aurrezki Kutxa	Kaleei zorua jartzea	10.000.000	MIBOR+0,4	10-10-02	7.500.000
Nafarroako Aurrezki Kutxa	Maileguak birfinanziatzea	30.500.000	MIBOR+0,4	10-10-02	22.875.000
Nafarroako Rural Kutxa	Liburutegia	13.500.000	6,30	11-01-07	13.500.000
Nafarroako Rural Kutxa	Diruzaintza	5.000.000	6,30	11-01-02	5.000.000
		64.000.000			53.875.000

OHARRA: 96-12-31n ordaintzeko dagoen kapitalak ez du barne hartzen Nafarroako Gobernuko Nekazaritza Departamentuaren baso birlandaketak egiteko emandako aurrerakina. Eragiketa horrek ez du interes tasarik batere sortzen eta ez du mugaegun jakinik.

2. ERANSKINA. UDALAREN ORGANIGRAMA 1996KO ABENDUAREN 31N.

A = Administrazio kontratuduna
F= Funtzionarioa
ABLK= Aldi baterako lan kontratuduna
LKF= Lan kontratudun finkoa